**UDALBATZAK 2012KO URTARRILAREN 31N EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamabiko urtarrilaren 31ko arratsaldeko 18:35 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Juan Carlos MERINO GONZALEZ
- Maria RODRIGUEZ RODRIGUEZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Mª Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 31 DE ENERO DE 2012**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:35 horas del día 31 de enero del año dos mil doce, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia del Alcalde Don Julen MENDOZA PÉREZ, los siguientes Concejales:

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luís María DÍEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Mª Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA

- Marta BAREA JUARISTI
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

Ez da etorri baina ezinetorria adierazi du Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS jaunak (PP).

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari nagusi jauna.

**1. Udalbatzak 2011ko azaroaren 26an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Udalbatzak 2011ko azaroaren 26an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dute.

**2.- Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (2011ko 1261 zk.tik 1299 zk.ra, biak barne, eta 2012ko 1 zk.tik 58 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (2011ko 1825 zk.tik 1902 zk.ra, biak barne eta 2012ko 1 zk.tik 158 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Ondorengo ebazpenen berri eman da: Alkatetzarenak (2011ko 1261 zk.tik 1299 zk.ra, biak barne, eta 2012ko 1 zk.tik 58 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (2011ko 1825 zk.tik 1902 zk.ra, biak barne eta 2012ko 1 zk.tik 158 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

- Marta BAREA JUARISTI
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

No asiste, excusando su asistencia, D. José Manuel HERZOG DE BUSTOS (PP).

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1.- Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 26 de noviembre de 2011.**

Leída por el Secretario el Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 26 de noviembre de 2011.

Se aprueba sin observación alguna.

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 1261 al 1299, ambos incluidos, correspondientes al año 2011 y nºs. 1 al 58, ambos incluidos, correspondientes al año 2012), de Concejales Delegados (nºs. 1825 al 1902, ambos incluidos, correspondientes al año 2011 y nºs. 1 al 158, ambos incluidos, correspondientes al año 2012) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 1261 al 1299, ambos incluidos, correspondientes al año 2011 y nºs. 1 al 58, ambos incluidos, correspondientes al año 2012), de Concejales Delegados (nºs. 1825 al 1902, ambos incluidos, correspondientes al año 2011 y nºs. 1 al 158, ambos incluidos, correspondientes al año 2012) y de la Junta de Gobierno Local.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**3. Proposamena: "Errenteriako Udalaren Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren Udal Araudia"-ren hasierako onarpena.**

**Aurrekariak**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak espresuki Udalei eskumenak egozten dizkie ingurumena babesteko gaiaren inguruan.

Garapen iraunkorraren printzipioa espresuki aurreikusita dago Lurzoru eta Hirigintzaren Legearen 3 artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean.

Udal konpromiso gisa, Errenteriako Iraunkortasunerako 1. Tokiko Ekintzaren Planak, 5 Lerro Estrategikoaren eta 5.1 Programaren barnean (Udal ekimenetan herritarren parte hartzea areagotzeko Programa), jasotzen du Aholku Batzordea sortzea, herritarren ekimenak bideratu eta herritarrek parte har dezaten mekanismo berriak sustatzeko organo gisa arituko dena. Halako konpromisoa betetzearren "*Errenteriako Udalaren Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren Udal Araudia*"ren Ordenantza Proiektua idatzi da.

2012ko urtarrilaren 17an, horri buruzko aldeko txostena idatzi dute Francisco Javier Lesca Ezpeleta idazkariak, Ramon Ruiz de Mendoza udal arkitektoak, Iñaki Azkarate ingurumenaren udal teknikariak eta Vicente Castiella udal aholkulari juridikoak.

**3.- Propuesta: Aprobación inicial del "Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Errenteria".**

**Antecedentes.-**

La Ley de Bases del Régimen Local expresamente atribuye competencias a los municipios en materia de protección del medio ambiente.

El principio de desarrollo sostenible está expresamente previsto en el artículo 3 de nuestra Ley de Suelo y Urbanismo, y la Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Como compromiso municipal, el 1er Plan de Acción Local para la Sostenibilidad de Errenteria, dentro de la 5ª Línea Estratégica y el Programa 5.1 (Programa para el aumento de la participación de la ciudadanía en las iniciativas municipales) recoge la creación de un Consejo Asesor que actúe como órgano canalizador de iniciativas ciudadanas e impulsor de nuevos mecanismos de participación ciudadana. Con el fin de dar cumplimiento a tal compromiso se ha redactado el Proyecto de ordenanza del "*Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Errenteria*".

Con fecha 17 de enero de 2012, se ha emitido informe favorable al respecto suscrito por parte del secretario, Francisco Javier Lesca Ezpeleta, el arquitécto municipal, Ramón Ruiz de Mendoza, el técnico municipal de medio ambiente, Iñaki Azkarate, y el asesor jurídico municipal, Vicente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Castiella.

**Legeri aplikagarria.**

2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3 artikulua, Lurzoruaren eta Hirigintzari buruzkoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.a), 22.2.d), 25.1 eta 25.2. f), 47.2.f., 49, 69.2, 70.2, 70 bis.1., 84 eta 123.1.c. artikuluetan ezarritakoa, Tokiko Araubidearen gaian indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateginaren 55 eta 56 artikuluak, AJAren (Antolakuntza eta Jarduera Araudia) 172. artikulua eta Tokiko Udalbatzen Zerbitzu Araudiaren 5 artikulua eta ondorengoak.

Mendi eta Ingurumen batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du Errenteriako Ezkerraren bozeramaile baino gehiago hitz egingo duela Ingurumeneko zinegotzi gisa. Bere iritziz, gaur egun urrats bat gehiago eman dezakete herritarren parte-hartzearen inguruan, bere aburuz beharrezkoa dena eta, berriro dio, Udalbatza honek eta aurrekoek hasitako kontua dela. Hala, gaur osoko bilkurara ekarri duten proiektua egiteko garaian saiatu dira, eta hein handi batean erdietsi dutela uste du, denek esku har dezaten. Alde batetik, argi dagoen moduan, udal talde politikoek, eta bestetik, baita talde eta pertsonek ere, zeinek egin dituzten ekarpenekin hasiera batean aurkeztu zuten zirriborroa hobetu baitute. Esan dezake ia-ia ekarpen guztiak sartu dituztela orain bozkatuko duten araudi-proiektuan. Bere iritziz, gainera, herritarren parte-hartzeak ez du mimetikoki jarraitu daitekeen eredurik, izatekoan izandako esperientzia onez eta txarrez hitz egin dezakete.

**Legislación aplicable.-**

Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Lo establecido en los artículos 4.1.a), 22.2.d), 25.1 y 25.2. f), 47.2.f., 49, 69.2, 70.2, 70 bis.1., 84 y 123.1.c. de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F. y artículo 5 y siguientes del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales.

Vista la propuesta de la comisión informativa de Medio Ambiente y Montes.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que su intervención, más que como portavoz de Errenteriako Ezkerra, la hará en este caso como Concejal de Medio Ambiente. Parte de la consideración de que hoy es posible dar un paso más dentro de la participación ciudadana, paso que considera necesario y que insiste, es un paso que esta Corporación y otras anteriores ya habían emprendido. En la elaboración del proyecto que hoy se trae al Pleno han intentado y cree que en buena parte conseguido, buscar la participación de todos y de todas. Por un lado, evidentemente de los Grupos Políticos municipales, pero también de colectivos y personas que sin duda han aportado y que hace que lo que hoy se trae, sea mejor que lo que inicialmente presentaron como borrador. Cabe decir que casi todas las aportaciones realizadas han sido incluídas en el proyecto de Reglamento que se somete a votación. Piensa que la participación ciudadana no



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Berari gustatuko litzaioke araudi hau dela eta —hasierako onespena ematea espero duena—, Kontseiluan parte hartuko duten guztiei merezi izan dueneko esperientzia ematea, azken finean, bere ustetan, ona eta positiboa izan delako. Bere aburuz erregelamenduak horretarako bide emango du, eta horregatik eskatzen du Udaleko talde politiko guztien aldeko botoa.

tiene modelos a seguir miméticamente, en todo caso pueden hablar de buenas experiencias y también cabe decirlo, de malas experiencias. Le gustaría que este Reglamento, que espera se apruebe hoy incialmente, les haga llegar a todas y a todos los que van a participar en este Consejo a la conclusión de que la experiencia ha merecido la pena y haya sido buena y positiva. Entiende que el Reglamento va a contribuir a ello y por esto pide el voto favorable al conjunto de Grupos del Ayuntamiento.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du eurek udal araudiaren zirriborroan aldaketak egiteko iradokizuna kontuan hartzeko moduko bi printzipio edo helburuetan oinarrituz egin zituzten. Lehenengo, euren iritziz, Kontseiluak ez zuen soilik kontsulta egiteko organo bat izan behar, baizik eta aktiboago jardun behar zuela bai fiskalizazio-lanetan, hala nola udal mailan gai horren inguruan garatu daitezkeen ekintzak baloratzeko orduan ere. Alegia, Kontseilua ez zedila mugatu jakinaren gainean egotera bakarrik, baizik eta egin asmo diren jarduerak eta ekintzak baloratu behar zituela. Hots, ez duela proiektua ezagutu bakarrik egin behar, batzordean aldez aurretik jarrera bat hartu behar zuela. Bigarren helburua arin eta eraginkor jardungo lukeen Ingurumen Aholku Kontseilua erdiestea nahi zuten. Aitortzen du eurek ez zutela egin zentzu horretako proposamen zehatzik, hori zaila dela uste duelako, baina partaideak izateko proposaturikoetatik inor ez baztertzea nahi zuten. Eurek, Kontseilua arina, dinamikoa eta eraginkorra izatekotan, azpibatzordeetan birbanatu behar zela aurreikusten zuten, zeren eta, hogeita hemeretzi lagun mahai baten inguruan dinamizatzea oso zaila izan litekeelako, eta gerta bailiteke ez oso eraginkorra izatea. Azkenik, pozik esan behar du eurek eginiko proposamenak ongi hartuak izan direlako Sailean, eta ondorioz, hasierako

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que ellos hacían consideraciones o sugerencias de modificaciones al borrador de Reglamento municipal guiándose por dos principios u objetivos a tener en cuenta. El primero era que el Consejo no debia ser un órgano de mera consulta, sino que tenía que tener un papel más activo, tanto en la fiscalización como en la valoración de las acciones que se puedan desarrollar a nivel municipal en el área en cuestión. Que no se limitara el Consejo a darse por enterado, sino que entrara a valorar las actividades y las acciones que se fueran a desarrollar. Que no solo conozca los proyectos, sino que se posicione previamente en comisión. El segundo objetivo era el conseguir un Consejo Asesor de Medio Ambiente que se caracterizara por la operatividad y por la agilidad. Tiene que reconocer que no hacían una propuesta concreta en ese sentido porque cree que es complicado, pero sí con el ánimo de no excluir a nadie de los que estaban propuestos como miembros potenciales. La enfocaban hacia una redistribución en subcomisiones con el único objetivo de que fuera un Consejo ágil, dinámico y operativo, porque treinta y nueve personas alrededor de una mesa es muy costoso de dinamizar y puede que no resulte muy operativo. Tiene que decir con satisfacción que ha habido receptividad por parte

onarpenaren aldeko bozka emango dutela.

del Area a las propuestas que se han realizado y van a votar a favor de la aprobación inicial.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bere taldeak gai hau gehiago findu zitekeela uste duela, alabaina berehala egina ikusi nahi zela zirudien. Gaia erabat presazkoa jo da, baina halere, prest daude konfiantzazko boto bat emateko eta horregatik aldeko bozka emango dute, nahiz eta azpimarratzen duen gehixeago leuntzea gustatuko litzaiekeela.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que su Grupo piensa que se podría haber pulido más este asunto, pero parece que se quería visualizar de manera inmediata e inminente. Se ha dado un concepto de total urgencia al tema, están dispuestos a dar un voto de confianza y votarán a favor aun recalcando que les hubiera gustado pulirlo un poco.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du pozten direla araudi honek bidea ematen diolako Aholku Kontseilu martxan jartzeari. Uste du herri honek demanda hori aspalditik zuela mahai gainean, eta horregatik, eurek pozten dira. Araudiari begira, berriz, esan nahi dute, euren iritziz, herritarren parte hartzea beste erregelamenduek baino hobeto bermatzen duela, eta alde horretatik uste dute pauso bat gehiago ematen dela.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que se alegran porque este reglamento posibilita la puesta en marcha del Consejo Asesor. Cree que era una demanda que este pueblo venía haciendo desde hace tiempo, motivo por el cual se alegran. En cuanto al reglamento, a su juicio, garantiza mejor que otros reglamentos la participación ciudadana, y desde ese punto de vista consideran que se da un paso más en esa línea.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. ***“Errenteriako Udalaren Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren Udal Araudia”ri hasierako onarpena ematea.*** Araudia espedienteari erantsi zaio.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 eguneko epean Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, hala nola lurraldeko egunkari zabalduenetako batean eta Udalaren iragarki-taulan. Horrela erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dira, eta halakoak egiten badira, Udalbatzak ebatzi beharko ditu. Era berean,

1º.- **Aprobar inicialmente** el ***Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Errenteria****,* que se adjunta al expediente.

2º.- Exponerla a información pública por el plazo de 30 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia, y en el tablón de anuncios municipal, a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

halakorik egiten ez bada, Araudia onartutzat emango da behin betiko.

3. Interesatuei erabakiaren berri ematea.

**4. Proposamena: "Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publikoko tarifak bateratzeko sistema ezartzearren Lankidetzarako Protokolo Orokorra" onartzea.**

2010eko apirilaren 30ean Errenteriako Udaleko Udalbatzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza (GGLA) eratzeko asmoz egindako Lankidetza Hitzarmena sinatzea erabaki zuen.

Behin GGLA osoz eratuta eta 2011ko azaroaren 17an, GGLA Patzuergoaren Batzar Orokorrak "Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko Lankidetzarako Portokolo Orokorra "onestu zuen.

Udal Aholkulari Jurídikoak, Idazkariaren on iritziarekin, 2012ko urtarrilalren 13an aipatutako Protokoloa onartzearen aldeko txostena egin du.

Trafiko eta Garraio batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du prozesua hau aspalditik datorren dela, hain zuzen Gipuzkoako Lurralde Garraioaren Agintaritzaren Partzuergoa, bere garaian, sortzeko hasitakoa. Pozten dira urratsak ematen jarraitzen dutela ikusten dutelako, eta gaia zerraditzen ari direlako. Pozten dira, beraz, akordioaz eta, aldeko bozka emango dutela, gaineratu du.

Corporación. De no producirse, el Reglamento se considerará definitivamente aprobada.

3º.- Notificar dicho acuerdo a los interesados.

**4.- Propuesta: aprobación del "Protocolo General de Colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa"**

Con fecha 30 de abril de 2010 el Pleno del Ayuntamiento aprobó el Convenio de Colaboración para la constitución del Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. (ATTG)

Una vez constituida la ATTG y con fecha 17 de noviembre de 2011 el Asamblea General del Consorcio ATTG acuerda aprobar el "Protocolo General de Colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público"

La Asesora Jurídica municipal, con la conformidad del Secretario ha emitido informe con fecha 13 de enero de 2012, favorable a la aprobación de dicho Protocolo.

Vista la propuesta de la Comisión de Tráfico y Transportes.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que éste es un proceso largo, que viene de lejos para la creación en su día del Consorcio de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. Es satisfactorio ver que se van dando pasos, que se está acotando todo este tema, les satisface que se pueda presentar este acuerdo y por tanto, votarán a favor.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du pauso bat gehiago dela garraio publikoaren aldeko apustuan tarifak modu horretan kudeatu ahal izatea.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que poder gestionar de esa manera las tarifas, es un paso más en pro del transporte público.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko Lankidetzarako Protokolo Orokorra, espedientean jasota geratu dena.

1.- Aprobar el Protocolo General de Colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Hstórico de Gipuzkoa, que se adjunta en el expediente.

2.- Alkatea ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, bera ordezkatuz Errenteriako Udalaren izenean Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko Lankidetzarako Protokolo Orokorra sinatzeko, eta honako akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu beharreko egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak eman ditzan.

2.- Facultar al Sr. Alcalde, tan ampliamente como en derecho se requiera, para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Errenteria firme el Protocolo General de Colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa, realice los actos y otorgue cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para dar efectividad al presente acuerdo.

**5. PSE-EEren udal taldearen mozioa, "Atez Ateko" zabor-bilketa sistemari buruzkoa.**

**5.- Moción del Grupo Municipal del PSE-EE relativa al sistema de recogida de basuras "Puerta a Puerta".**

Idazkariak mozioa irakurri du, zeinak hitzez hitz zera baitio:

Leída por el Secretario la siguiente moción, que literalmente dice:

**"Alkate jaunari**

**"Al señor Alcalde**

Juan Carlos Merino jaunak, Errenteriako udaleko PSE-EE taldearen bozeramaileak, osoko bilkuran ikusia izan dadin, ondoko MOZIOA aurkeztu du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko hainbat alkateei euren herrietan Atez Ateko bilketa-sistema

D. Juan Carlos Merino, Portavoz del grupo PSE-EE en el Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION, con relación a la carta dirigida por varios alcaldes al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

ezartzeko eskatuz zuzenduriko gutuna dela eta.

## JUSTIFIKAZIOA

Azken egun hauetan jakin dugu badaudela berrogei gutun —beste hainbeste alkatek sinaturikoak—, “Atez ateko” zabor-bilketa sistema euren herrietan jarri nahi dutela adieraziz. Guk bereizi nahi ditugu bilketa-sistema hau eta ondoren zaborrari ematen zaion tratamendua, izan ere, ez baitute bat bestearekin ezer ikustekorik.

Sozialistok, bilketa-sistemari dagokionez, Gipuzkoan toki askotan funtzionatzen ari den alternatiba proposatzen dugu, hain zuzen hainbat arrazoiengatik, sistemarik egokiena dela erakutsi duelako:

1. Atez Ateko sistema gai organikoentzako ezartzen den bosgarren edukiontzia baino askozaz zikinagoa da, eta sistema horrek bi hamarkadatan atzera egitea suposatzen du, jendeak zaborra kalean pilatuta uzten zuen garaietara hain justu. Kalean ipintzen diren edukiontzi itxiak garbiagoak dira eta herriaren irudi ordenatuagoa ematen dute.

2. Atez Ateko sistema deserosoagoa da astelehenetan ontziak jaistera beharrarazten gaituelako; asteartetan organikoa; asteazkenetan papera eta kartoia; ostegunetan beira, etab. Azken finean, asko mugatzen du asteko edozein egunetan janari galkor jakin batzuek kontsumitzea.

3. Atez Ateko sistema Udalarentzat garestiagoa da eta gain-kostuak herritarrek zerga bidez ordaintzen dituzte. Horrela, 30.000 lagun bizi diren 3 herrietarako, Bilduk 17 langile enplegatu ditu, aitzitik, 300.000 lagun bizi diren hirigunerako

acerca de la implantación del sistema de recogida Puerta a Puerta en nuestro pueblo.

## JUSTIFICACION

Hemos tenido conocimiento a lo largo de estos días de la existencia de cuarenta cartas firmadas por sus correspondientes alcaldes anunciando la voluntad en nombre de la corporación de instaurar el sistema puerta a puerta en sus localidades. Queremos comenzar diferenciando este sistema de recogida con su posterior tratamiento. Nada tiene que ver una cosa con otra.

Los socialistas, en cuanto al sistema de recogida, proponemos una alternativa que ya está en funcionamiento en muchos lugares de Gipuzkoa y que se ha revelado como un sistema más adecuado por varias razones:

1 El puerta a puerta es un sistema más sucio que el establecimiento del quinto contenedor o contenedor para materia orgánica y supone un retroceso de dos décadas, a tiempos en que la gente dejaba amontonada la basura en la calle. Los contenedores cerrados en la vía pública son más limpios y ofrecen una imagen de nuestra localidad más ordenada

2 El Puerta a puerta es un sistema más incomodo porque nos obliga a bajar los lunes los embases, los martes la orgánica, los miércoles el papel cartón, los jueves el vidrio, etc.., En definitiva, te limita enormemente tu libertad de consumir determinados alimentos perecederos cualquier día de la semana.

3 El Puerta a puerta es un sistema más caro para el Ayuntamiento y los sobrecostes se pagan con los impuestos de los ciudadanos. Para 3 municipios que reúnen 30.000 habitantes, Bildu está empleando a 17 trabajadores, mientras que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Donostialdeak 7 lagunez osaturiko lan-talde bat behar izan du.

para una conurbación de 300.000 habitantes, Donostialdea ha necesitado hasta ahora una brigada de 7 operarios.

Oso tamalgarria da ikustea nola alkate zenbaitek jo duen Gipuzkoako Hondakinen Partzuergora, euren kabuz eta oposizioko gainontzeko taldeekin kontatu gabe, Atez Ateko sistema jarri behar dutela adierazi dutelako.

Resulta muy lamentable que algunos Alcaldes se hayan dirigido al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa comunicando, por su cuenta y riesgo y sin atención a lo que opinan el resto de grupo de la oposición, que van a imponer el sistema Puerta a Puerta.

Adierazitako guztiagatik, PSE-EE udal taldeak planteatzen du ondoko

Por todo lo que antecede, el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOZIOA**

Lehenengo. Errenteriako Udalbatzak Udal Gobernuari exijitzen dio, zaborra biltzeko sistemari buruz edozein akordio hartu aurretik, Osoko Bilkuran eztabaida demokratiko bat burutzeko eta konpromisoa hartzeko Udaleko ordezkaritza politikoaren gehiengoak erabakitzen duena errespetatzeko.

Bigarren. Errenteriako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, zaborra biltzeko sistemari buruz edozein akordio hartu aurretik, berehala ekartzeko Atez Ateko bilketaren inguruko kostuei buruzko datuak, hala nola zabor organikoa nora eramaten den eta hori garraiatzea kostatzen denari buruzkoak".

**MOCION**

Primero.- El Ayuntamiento Pleno de Errenteria, exige al Gobierno Municipal que, previamente a la adopción de cualquier tipo de acuerdo respecto del sistema de recogida de la basura, se lleve a cabo un debate democrático en Sesión Plenaria y se comprometa a respetar lo que acuerde la mayoría de la representación política de ese Ayuntamiento

Segundo.- El Ayuntamiento Pleno de Errenteria exige al Gobierno que, previamente a la toma de cualquier tipo de decisión sobre la recogida de la basura, aporte con carácter de urgencia cuantos datos disponga sobre los costes asociados al Puerta a Puerta y sobre el destino inmediato de la basura orgánica y el coste asociado al transporte del mismo."

Ondoren, mintzatu dira:

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du ez dela kapritxoagatik, baina, beste behin, hondakin-kontua orokorrean berriro aitatu beharrean aurkitzen dira, bere iritziz, atez ateko zabor-bilketa sistema edo beste edozein oso gai garrantzitsua delako. Bere aburuz, bere Taldearen jarrera soberan ere ezaguna da, baina

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que no es por capricho, pero una vez más tienen que incidir en el tema de los residuos en general, y en una faceta muy importante como es el sí o el no en cuanto a la recogida de residuos por el sistema puerta a puerta o por cualquier otro. Cree que es



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

mila arrazoi daude —beharrezkoa izanez gero azalduko lituzke— berorren berri emateko. Ez luke nahi leporatzea azalpenak ematen denbora asko pasatzen duela edo kalaka-emailea dela, baina gaia garrantzi handikoa dela uste du. Hortaz, bada, gaia ez dela hutsala iruditzen zaionez, errepikatzea, eztabaidatzea eta hedatzea beharrezkoa dela uste du, nahiz eta, batzuetan, eztabaida hori prestua izaten den eta bestetan, berriz, ez hainbeste. Gaur zabor-bilketari buruz esan behar dute gai honen inguruko esperientziak ez direla batere eredugarriak. Izan ere, garestiagoa, zikinagoa eta herritarrei deserosotasun gehiago eragiten diena baita. Horregatik, bere Taldeak aurkezturiko mozioan eskatzen dute aintzat hartzeko bertan ezagutzera ematen diren puntuak, adibidez, gizarte-eztabaida. Bere irudiko eztabaida jada martxan dago, baina uste du Udalbatzak ere egin beharko lukeela eta errespetatu bertatik ateratzen dena. Orobat, uste du mahai gainean gai ekonomiko eta bestelakoen inguruko datu objektiboak egon beharko luketela. Bere iritziz, beste gaiekin herritarrek esku har dezaten dei argia egiten da, eta honetan ere egin beharko litzakeela pentsatzen du. Eta demostratzen bada herritarrak ez daudela afera honen alde, edo eurek hainbeste aldiz aurkeztu dutenak kontraesaten dituen datuak dituela, ba, aintzat hartuko dituzte. Beraz, mozioaren berri dutenez, bozkatu dadin eskatzen du.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du sozialisten eledunak planteaturikoa aintzat hartuta, berak ez du lehengo eztabaidetan esandakoa errepikatzeko asmorik, ezta eztabaiden terminoak ere. Horrela, berrehun orri baino gehiago zituen akta bat onartu dute, bertan gai hau zuzenean edo zeharka ukitzen zen, eta ziur dago akta horren zati hori hartzen badute, argudio berdintsuak

sobradamente conocida la posición de su Grupo pero hay múltiples razones, que algunas si fuera necesario las expondría. No quisiera que se le tachara de alargarse mucho en la exposición y de pelma en los temas, pero cree que es un asunto de una gran enjundia y de una gran entidad. Está de acuerdo, no le parece en absoluto baladí el que se insista, que haya debate y se difunda el tema, pero a veces ven que hay un debate honesto y objetivo y otras no tanto. Hoy que se centran en la recogida de residuos tienen que decir que las experiencias que existen en absoluto les parecen ejemplares. Es más caro, es más sucio, crea más incomodidades en la población y por ello, pediría que se tomaran en total consideración los puntos que se detallan en la moción que su Grupo ha presentado, como el que se abra un debate en la sociedad. Cree que está abierto, pero en la Corporación también debería hacerse y respetar lo que de ese debate emane. De la misma manera, que haya sobre la mesa datos objetivos, de tipo económico y de otra consideración. En otros temas se hace una apelación clara a la participación ciudadana y cree que en éste también debe hacerse igualmente y si se les demuestra que la ciudadanía no está por este tema o que hay datos que contradigan lo que tantas veces ellos han presentado, así será. La moción es conocida y no queda más que pedir que se vote.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que cogiendo un poco la mano que plantea el portavoz socialista, no es su intención volver a repetir discusiones, ni términos de las discusiones. Acaban de aprobar un acta de más de doscientas páginas, una parte de la misma estaba dirigida directa o indirectamente a este tema, y está seguro que si cogen esa parte del



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

adieraziko zituztela. Orain bi gauza egin ditzakete. Alegia, hango argudioak eta eztabaidak errepikatu —ez da bere asmoa— edo afera honekin aurrera jarraitu, beti ere, konbentziturik egonik, lehenik hondakinak kudeatzeko politika eraginkor baten alde daudela, denek arazotzat daukaten kontuari erantzuna emango dioena, hain zuzen ere. Eta bigarren, helburu hori lortzeko ez dela baztertzen egun Errenterian funtzionamenduan dauden sistema bakar bat ere. Bere aburuz ez dago herritarrek euren iritzia ematea baino ezer demokratikoagorik. Hala, Talde guztiek erdiets dezaketen gutxiengo akordio batetik partituz, berak hondakinen inguruan herritarrok parte hartzeko prozesua bultzatzearren gonbidapen bat egingo luke, besteak beste, eztabaidatzeko nola sortzen dugun, nola jasotzen diren eta nola tratatzen direnaren inguruan denak ados jartzeko. Jakina, berak konpromisoa hartzen du prozesu horretan parte hartzeko, are gehiago, uda baino lehen jendeak parte hartzeko prozesua sendotzeko oinarriak kokatu ditzaketela uste du. Horregatik, planteatzen ari dena gauzatu litekeela konbentzituta dagoenez, denak gonbidatzen ditu lanean hasteko, azken finean horixe delako Errenteriako herritarrak kontu horrekiko eskatzen dietena.

acta, prácticamente repetirían los mismos argumentos. Ante esto pueden hacer dos cosas, repetir los argumentos y discusiones, que no es su intención, o plantear el avanzar en esta cuestión desde el convencimiento de que, primero: todos apuestan por una política de gestión eficaz de residuos que dé respuesta a lo que todos consideran un problema, y segundo: que para el logro del citado objetivo no se descarta ninguno de los sistemas actualmente en funcionamiento en este momento en Errenteria. Considera que no hay nada más democrático que los vecinos y vecinas se puedan expresar y opinar. Desde el acuerdo de una serie de puntos mínimos, que piensa pueden alcanzar todos los Grupos, haría una invitación a que todos se pongan de acuerdo en impulsar un proceso de participación ciudadana sobre la cuestión de los residuos, un debate sobre cómo se generan, cómo se recogen y cómo se tratan. Evidentemente, personalmente se compromete a participar en ese proceso y es más, cree que es posible situar las bases sobre las que deben asentar este proceso de participación ciudadana, antes del verano. Desde el convencimiento de que es posible llevar adelante lo que está planteando lanza una invitación a todos y todas para que se pongan a trabajar, que es en última instancia lo que la ciudadanía de Errenteria les pide en esta cuestión.

* Bastos andreak (PP) esan du bere Taldea ados dagoela mozioan jasota dagoen testuarekin. Horrela, eurek bosgarren kontenedorea jartzearen alde daude, eta ez datoz bat atez ateko bilketa-sistemarekin, garestiagoa, errentagarritasun gutxiago ematen duena eta, sistema hori duten herrietan, bere aburuz, ez delako emaitza onak ematen ari. Horregatik, mozioaren alde bozkatuko dute.

* Interviene la Sra. Bastos (PP) manifestando que su Grupo está de acuerdo con el texto que se plantea en la moción. Apoyan el quinto contenedor y no están de acuerdo con la recogida puerta a puerta, es más caro, menos rentable y en los pueblos donde se está haciendo, según su opinión, no está dando buenos resultados. Por todo ello, votarán a favor de la moción.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du eurek ere alde

* Interviene en euskera la Sra. Peña (EAJ/PNV)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

bozkatuko dutela. Euren iritziz, argi dago zer den eskatzen dena, eta beraz, ez ditu errepikatuko argudioak.

manifestando que van a votar a favor. A su juicio está claro lo que solicita y en consecuencia, no va a repetir los argumentos.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du eurek ez dutela alde bozkatuko, baina argi utzi nahi dute euren nahia mozioan jasotzen diren bi puntuekin bat egitea eta aurrekariak alde batera uztea zela, hain zuzen, euren aburuz, justifikazioan erabilera politikoa ematen delako. Horrez gain, Ferradas jaunak esandakoekin bat eginez, uste dute gizartean eztabaida bat eman behar dela, zaborren inguruan hausnarketa sakon bat egiteko, alegia, sortzen denetik hori kudeatzeko sistemak aztertzeraino.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que no van a votar favorablemente, pero desea dejar claro que su intención era la de aprobar los dos puntos de la moción prescindiendo los antecedentes, ya que a su entender se realiza una utilización política en la justificación. Además, uniendose a lo expresado por el Sr. Ferradás, consideran que en la sociedad se tiene que dar un debate profundo en torno a la gestión de los residuos, esto es, desde la generación, hasta los sistemas de eliminación.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta aurkako 9 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor ((Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) y 9 votos en contra (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Onartzea PSE-EE udal taldeak “Atez Ateko” zabor-bilketa sistemari buruz aurkezturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Aprobar la moción del Grupo Municipal del PSE-EE relativa al sistema de recogida de basuras “Puerta a Puerta”, que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**6. PSE-EEren udal taldearen mozioa, 2011ko Foru Funtsa Finantzatzeko aurreikusitako likidazio negatiboa itzultzeari buruzkoa.**

**6.- Moción del PSE-EE sobre la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo Foral de Financiación 2011**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du, zeinak hitzez hitz zera baitio:

Leída por el Secretario la siguiente moción que literalmente dice:

“Juan Carlos Merino jaunak, Errenteriako udalaren PSE-EE taldeko bozeramaileak, Udalbatzari ondoko **MOZIOA** aurkeztu dio, hain zuzen Udala Finantzatzeko Foru Funtsaren aurreikusitako 2011ko likidazio negatiboa itzultzeari buruzkoa.

“D. Juan Carlos Merino, Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente **MOCION** con relación a la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo Foral de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Financiación Municipal 2011.

**JUSTIFIKAZIOA**

Udala Finantzatzeko Foru Funtsa udalek duten diru-sarrerarik garrantzitsuena da. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen aportazioen bidez udalek esku hartzen du hitzarturiko zerga-bilketan. Ohiko izaerako baliabide bat da eta udalek edozein gastu-mota (ohikoa zein kapitalari dagokiona) egiteko balia dezake.

Oraingo koiuntura ekonomikoaren aurrean, Gipuzkoako udal askotako diru-kutxek ezin diote Gipuzkoako Foru Aldundiari Udala Finantzatzeko Funtsa itzuli. Kontzertu Ekonomikoak ezartzen duen arrisku partekatuaren printzipioari jarraiki, udal aurrekontuak urtetik urtera estuagoak dira diru-sarrera urriagoak direlako, eta horrek beharrarazten du gastuak zorrotz doitzea eta lehentasunak finkatzea. Udala Finantzatzeko Funtsaren itzulketa zein aurrekontu-doiketak udaletan tentsio gogorrak eragiten ari dira, hain justu udalek Foru Ogasunarekin dituzten betebeharrei ezin dietelako aurre egin.

2011. urte hau ez da krisiaren lehenengo urtea, ezta ere Aldundiak aurreikusitako diru-sarrera handiegiak egin zituelako, diru-kopurua itzuli behar duten lehenengoa ere. Izan ere, 2008az geroztik Gipuzkoako udalek, UFFFren likidazioa aurrekontuan aurreikusitako baino txikiagoa zelako, milioika euro itzuli behar izan dituzte 2008an, 2009an eta 2010ean. Esaterako, 2009an hogeita sei milioi itzuli behar izan zion Donostiako udalak Foru-kutxari.

**JUSTIFICACION**

El Fondo Foral de Financiación municipal constituye una de las fuentes de ingresos más importantes de los ayuntamientos. Mediante esta aportación que realiza la Diputación Foral de Gipuzkoa, los ayuntamientos participan en lo recaudado por los impuestos concertados. Se trata de un recurso de carácter ordinario y los ayuntamientos pueden destinarlo a financiar cualquier tipo de gasto, ya sea corriente o de capital.

Ante la actual coyuntura económica, las arcas municipales de muchos ayuntamientos guipuzcoanos no pueden devolver a la Diputación Foral de Gipuzkoa el Fondo de Financiación Municipal. Aceptando el principio de riesgo compartido que establece el Concierto Económico, bien es cierto que los presupuestos municipales se encuentran cada año más encorsetados por una situación de escasez de ingresos que obliga a ajustar y priorizar gastos de forma drástica. Tanto la devolución del Fondo de Financiación Municipal, como los reajustes presupuestarios, están provocando fuertes tensiones financieras en los ayuntamientos que no pueden hacer frente a sus obligaciones económicas con la Hacienda Foral.

Este año 2011 no es el primer año de crisis ni tampoco el primero en que se deben devolver cantidades debido a una previsión de la Diputación de mayores ingresos que los luego realizados. Desde el año 2008 los ayuntamientos guipuzcoanos se han visto en la obligación, ante la menor liquidación del FOFIM sobre la previsión presupuestaria establecida, de devolver millones de euros en los años 2008, 2009 y 2010. En concreto, en 2009, fueron por ejemplo, veintisiete



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

los millones a reintegrar a las arcas forales por parte del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Une hartan, eta erakundeek aurreikuspenik batere egin ez zutelako, eta Gipuzkoako herri guztientzako suposatzen zuen egoera delikatua zela eta, Sozialiston ekimen baten bidez akordio batera iritsi ziren Gipuzkoako Lurralde Finantza Kontseiluan, hain zuzen Foru Arauan jaso ondoren, itzulketa hiru urtez egiteko, lehenengo urtean, 2010ean alegia, libre utzita. Gure iritziz negoziazio hark emaitza ona zuen, alde guztiak kontentu utzi zituena, eta gainera, jarraitu beharreko adibide bat.

En aquel momento, y ante la total ausencia de previsiones institucionales y debido a la delicada situación que suponía para todos los municipios guipuzcoanos, se llegó a un acuerdo por iniciativa socialista, en el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, proyectado en Norma Foral, para que la devolución se produjera en tres años con un primer año, 2010, de carencia. Creemos que dicha negociación fue satisfactoria, facilitadora y posible para todas las partes y que además, es un buen ejemplo a seguir.

Finantzazio nahikoa izatea derrigorrezkoa da udal autonomiarentzako, nahitaezkoa delako finantzazio bitartekoak izatea izendatuta dauzkan eginkizunak, bere osotasunean, gauzatu ahal izateko.

La suficiencia financiera es determinante para el principio de autonomía municipal, ya que es imprescindible disponer de medios financieros para poder ejercer sin condicionamientos y en toda su extensión, las funciones que les han sido encomendadas.

Udalek krisia era berezian jasaten ari dira, eta beharrezkoa da erakundeen arteko elkartasuna. Horregatik, PSE-EE udal taldeak planteatzen du ondoko

Los Ayuntamientos están sufriendo especialmente la crisis y es necesario un ejercicio de solidaridad interinstitucional. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOZIOA**

**LEHENENGO. Errenteriako udalak salatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko Funtsaren 2011 urteari dagokion likidazio negatiboa itzultzeko erraztasunak ez emateko erabakia, besteak beste, horrek Udal hau finantzazio aldetik itota ibiliko dela esan nahi duelako.**

**BIGARREN. Errenteriako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bere jarrera berrikusteko eta 2009ko itzulketari aplikatu**

**MOCION**

**PRIMERO.- El Ayuntamiento de Errenteria denuncia que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tomado la decisión de no facilitar la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo de Financiación Municipal, correspondiente al año 2011, lo que va a suponer ahogar financieramente a este Consistorio**

**SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Errenteria insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que reconsidere su postura y decida plantear el**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

**zitzaion sistema bera planteatu dezan, hau da, urte bat itzuli gabe utzi eta 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldian zatika itzultzea".**

**mismo sistema que se aplicó para la devolución correspondiente al ejercicio 2009, esto es, un año de carencia y el abono fraccionado en los ejercicios 2013, 2014 y 2015."**

Ondoren mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du mozioaren muina udalak eta Aldundia zein egoera ekonomikoan dauden ohartaraztea dela, hain zuzen denek dakitelako hori nolakoa den. Hori, den bezalakoa izanik, bere Taldeak, bi puntu zehatzekin oso mozio argia aurkeztu zuen, baina ikusi dute beste hainbat taldek kontsentsu handiagoa lortzearren puntu zenbait aldatu nahi dituela. Horrela, mozioaren lehenengo eta bigarren puntuetarako proposatzen diren aldaketak direla-eta, era berean, berak nahi du jatorrizko mozioaren laugarren paragrafoa, zeina hasi eta bukatu ondorengo eran egiten baita: "*Une hartan, eta erakundeek aurreikuspenik batere egin ez zutelako, …… / …… alde guztiak kontentu utzi zituena, eta gainera, jarraitu beharreko adibide bat"* kentzea. Horrez gain, ebazpen-zatiaren lehenengo eta bigarren puntuak aldatuko lituzkete, ondorengo eran idatzita geratuko lirateke: **LEHENENGO.** Errenteriako udala kezkaturik dago Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko Funtsaren 2011 urteari dagokion likidazio negatiboa itzultzeko erraztasunak ez emateko erabakiarekin, besteak beste, horrek Udal hau finantzazio aldetik itota ibiliko dela esan nahi duelako. **BIGARREN.** Errenteriako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio erabakia hartzeko garaian kontuan hartzeko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa, eta beraz, 2011ko likidazioaren itzulketa 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldian egiteko aukera berrikusteko". Hau horrela onartuko balitz, bere Taldeak bat egingo lukeela, gaineratu

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que el fondo de la moción es constatar la situación económica en la que se encuentran los municipios y Diputación, que es producto de lo que todos saben. Ante eso su Grupo había presentado una moción clara, con dos puntos muy concretos, pero han observado que distintos Grupos han manifestado la voluntad de modificarla en algún aspecto, de tal manera que pueda suscitar mayor consenso. A la vista de la modificación que se propone para los puntos primero y segundo de la moción, quiere también que el cuarto párrafo de la moción original, que inicia y termina de la siguiente manera *"En aquel momento, y ante la total ausencia de …… / …… posible para todas las partes y que además, es un buen ejemplo a seguir.",* quede eliminado. Además se modificarían los puntos primero y segundo de la parte dispositiva quedando redactados de la siguiente manera: "**PRIMERO.-** El Ayuntamiento de Errenteria muestra su preocupación por la posibilidad de que la Diputación Foral de Gipuzkoa adopte la decisión de no facilitar la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo de Financiación Municipal, correspondiente al año 2011, lo que va a suponer ahogar financieramente a este Consistorio. **SEGUNDO.-** El Ayuntamiento de Errenteria solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en su decisión tenga presente la situación económica y financiera de los Ayuntamientos y considere la posibilidad de posponer la devolución de la liquidación del año 2011, entre los años 2013, 2014 y 2015." Si esto

du.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du bere Taldea prest zegoela aldeko bozka emateko, baina mozioa Talde guztiek abalatzeko aukera dagoenez, hori positiboa dela uste dute. Gainera, azken batean alderdi Sozialistak aurkezturiko mozioaren muina jasotzen duela uste dute, hau da, UFFFren itzulketa malgutzea. Horregatik, aldeko bozka emango dute.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du, nahiz eta gai horrekin akordio batera iritsi diren, nabardura pare bat egin nahi dituela. Euren ustez Foru Funtsaren afera mahai gainean jartzerakoan arduragabekeriaz jardun da. Izan ere, kontu hau atzetik datorrena da, eta orduan aurreikuspen ez egokiak egin zirelako, orain UFFFren afera eztabaidara ateratzea, oraindik erabakirik hartu ez denean, ez zaie egokia iruditzen. Hala ere, positibotzat jotzen dute gai horren inguruan denak ados jartzea, eta beraz, aldeko bozka emango dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udal talde ezberdinek adosturiko zuzenketa zenbait sartu dituzte. Alegia:

- **Laugarren paragrafoa kentzea** JUSIFIKAZIOA deituriko ataletik.

- **Aldatzea ebazpen zatiko lehenengo eta bigaren puntuak,** ondorengo eran idatzita geratuko direlarik:

**LEHENENGO.** Errenteriako udala kezkaturik dago Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko Funtsaren 2011 urteari dagokion likidazio negatiboa itzultzeko erraztasunak ez emateko erabakiagatik, hain zuzen horrek Udal hau finantzazio aldetik itota ibiliko dela esan nahi

se acepta asi, su Grupo lo asumiría.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que su Grupo también estaba dispuesto a votar a favor de la propuesta inicial, pero vista la opción de que la moción sea avalada por todos los Grupos, creen que es positivo. En última instancia piensa que recoge la esencia de la moción presentada por el Partido Socialista, que es la posibilidad de flexibilizar la devolución del FOFIM. Por tanto, votarán a favor.

* Interviene en euskera el Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) manifestando que aunque con este tema han llegado a un acuerdo, desea efectuar un par de matizaciones. A su juicio al poner encima de la mesa el tema del Fondo Foral se ha actuado con cierta irresponsabilidad, ya que viniendo como viene este tema de tiempo atrás, que ahora se saque a debatir el tema FOFIM, cuando todavía no se ha adoptado un acuerdo, no le parece correcto. A pesar de ello, como consideran positivo alcanzar un acuerdo entre todos en ese tema, votarán a favor.

Finalizadas las intervenciones.

Incluídas las rectificaciones acordadas con los distintos Grupos Municipales, consistentes en:

- **Eliminar el párrafo 4º** de la moción en su apartado “JUSTIFICACIÓN”.

- **Modificar los puntos primero y segundo de la parte dispositiva** quedando redactados de la siguiente manera:

**PRIMERO.-** El Ayuntamiento de Errenteria muestra su preocupación por la posibilidad de que la Diputación Foral de Gipuzkoa adopte la decisión de no facilitar la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo de Financiación Municipal, correspondiente al año 2011, lo que va



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

duelako.

**BIGARREN.** Errenteriako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bere erabakian kontuan izateko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa, eta berrikusteko 2011. urtean itzuli beharrekoa 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldian zatika itzultzeko aukera.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

**Onartzea** PSE-EEk Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2011ko likidazio negatiboaren aurreikuspena itzultzeari buruz aurkezturiko mozioa, zeina ondorengo eran idatzia baitago:

"Juan Carlos Merino jaunak, Errenteriako Udalaren PSE-EE taldeko bozeramaileak, Udalbatzari ondoko **MOZIOA** aurkeztu dio, hain zuzen Udala Finantzatzeko Foru Funtsaren aurreikusitako 2011ko likidazio negatiboa itzultzeari buruzkoa.

**JUSTIFIKAZIOA**

Udala Finantzatzeko Foru Funtsa udalek duten diru-sarrerarik garrantzitsuena da. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen aportazioen bidez udalek esku hartzen du hitzarturiko zerga-bilketan. Ohiko izaerako baliabide bat da eta udalek edozein gastu-mota (ohikoa zein kapitalari dagokiona) egiteko balia dezake.

Oraingo kointura ekonomikoaren aurrean, Gipuzkoako udal askotako diru-kutxek ezin diote Gipuzkoako Foru Aldundiari Udala Finantzatzeko

a suponer ahogar financieramente a este Consistorio.

**SEGUNDO.-** El Ayuntamiento de Errenteria solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en su decisión tenga presente la situación económica y financiera de los Ayuntamientos y considere la posibilidad de posponer la devolución de la liquidación del año 2011, entre los años 2013, 2014 y 2015.

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**A C U E R D A**

**Aprobar** la moción del PSE-EE sobre la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo Foral de Financiación 2011, quedando redactada en los siguientes términos:

"D. Juan Carlos Merino, Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente **MOCION** con relación a la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo Foral de Financiación Municipal 2011.

**JUSTIFICACION**

El Fondo Foral de Financiación municipal constituye una de las fuentes de ingresos más importantes de los ayuntamientos. Mediante esta aportación que realiza la Diputación Foral de Gipuzkoa, los ayuntamientos participan en lo recaudado por los impuestos concertados. Se trata de un recurso de carácter ordinario y los ayuntamientos pueden destinarlo a financiar cualquier tipo de gasto, ya sea corriente o de capital.

Ante la actual coyuntura económica, las arcas municipales de muchos ayuntamientos guipuzcoanos no pueden devolver a la Diputación



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Funtsa itzuli. Kontzertu Ekonomikoak ezartzen duen arrisku partekatuaren printzipioari jarraiki, udal aurrekontuak urtetik urtera estuagoak dira diru-sarrera urriagoak direlako, eta horrek behartarazten du gastuak zorrotz doitzea eta lehentasunak finkatzea. Udala Finantzatzeko Funtsaren itzulketa zein aurrekontu-doiketak udaletan tentsio gogorrak eragiten ari dira, hain justu udalek Foru Ogasunarekin dituzten betebeharrei ezin dietelako aurre egin.

Foral de Gipuzkoa el Fondo de Financiación Municipal. Aceptando el principio de riesgo compartido que establece el Concierto Económico, bien es cierto que los presupuestos municipales se encuentran cada año más encorsetados por una situación de escasez de ingresos que obliga a ajustar y priorizar gastos de forma drástica. Tanto la devolución del Fondo de Financiación Municipal, como los reajustes presupuestarios, están provocando fuertes tensiones financieras en los ayuntamientos que no pueden hacer frente a sus obligaciones económicas con la Hacienda Foral.

2011. urte hau ez da krisiaren lehenengo urtea, ezta ere Aldundiak aurreikusitako diru-sarrera handiegiak egin zituelako, diru-kopurua itzuli behar duten lehenengoa ere. Izan ere, 2008az geroztik Gipuzkoako udalek, UFFFren likidazioa aurrekontuan aurreikusitako baino txikiagoa zelako, milioika euro itzuli behar izan dituzte 2008an, 2009an eta 2010ean. Esaterako, 2009an hogeita sei milioi itzuli behar izan zion Donostiako Udalak Foru-kutxari.

Este año 2011 no es el primer año de crisis ni tampoco el primero en que se deben devolver cantidades debido a una previsión de la Diputación de mayores ingresos que los luego realizados. Desde el año 2008 los ayuntamientos guipuzcoanos se han visto en la obligación, ante la menor liquidación del FOFIM sobre la previsión presupuestaria establecida, de devolver millones de euros en los años 2008, 2009 y 2010. En concreto, en 2009, fueron por ejemplo, veintisiete los millones a reintegrar a las arcas forales por parte del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Finantzazio nahikoa izatea derrigorrezkoa da udal autonomiarentzako, nahitezkoa delako finantzazio bitartekoak izatea izendatuta dauzkan eginkizunak, bere osotasunean, gauzatu ahal izateko.

La suficiencia financiera es determinante para el principio de autonomía municipal, ya que es imprescindible disponer de medios financieros para poder ejercer sin condicionamientos y en toda su extensión, las funciones que les han sido encomendadas.

Udalek krisia era berezian jasaten ari dira, eta beharrezkoa da erakundeen arteko elkartasuna. Horregatik, PSE-EE udal taldeak planteatzen du ondoko

Los Ayuntamientos están sufriendo especialmente la crisis y es necesario un ejercicio de solidaridad interinstitucional. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOZIOA**

LEHENENGO. Errenteriako udala kezkaturik dago

**MOCION**

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Errenteria



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko Funtsaren 2011 urteari dagokion likidazio negatiboa itzultzeko erraztasunak ez emateko erabakiagatik, hain zuzen horrek Udal hau finantzazio aldetik itota ibiliko dela esan nahi duelako.

muestra su preocupación por la posibilidad de que la Diputación Foral de Gipuzkoa adopte la decisión de no facilitar la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo de Financiación Municipal, correspondiente al año 2011, lo que va a suponer ahogar financieramente a este Consistorio.

BIGARREN. Errenteriako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bere erabakian kontuan izateko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa, eta berrikusteko 2011. urtean itzuli beharrekoa 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldian zatika itzultzeko aukera".

SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Errenteria solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en su decisión tenga presente la situación económica y financiera de los Ayuntamientos y considere la posibilidad de posponer la devolución de la liquidación del año 2011, entre los años 2013, 2014 y 2015."

**7. Errenteriako Ezkerra eta Bildu udal taldeek aurkezturiko mozioa, Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa.**

**7.- Moción presentada por los Grupos Municipales Errenteriako Ezkerra y Bildu, sobre el cierre de la central nuclear de Santa María de Garoña.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du: Honek hitzez hitz hauxe dio:

Se da lectura por el Secretario a la siguiente moción que literalmente dice:

"Errenteriako Ezkerra eta Bildu MOZIO hau aurkeztu nahi du Santa María de Garoña zentral nuklearra ixtearen inguruan, ondorengo arrazoiei jarraiki:

"Los grupos municipales de Errenteriako Ezkerra y Bildu del Ayuntamiento de Errenteria vienen a formular para su aprobación la siguiente MOCIÓN, referida al cierre de la central Nuclear de Santa María de Garoña, en base a la siguiente:

**ZIO AZALPENAK**

Espainiako Gobernu berriak hasiera eman die Garoñako zentral nuklearraren jarduera lizentzia 2019 arte luzatzeko tramitei. Hasiera batean zentralerako aurreikusita zegoen balio-bizitza (40 urte Espainiako zentraletan) joan den urtean, 2011n, bukatu zen. Funtzionamenduan jarraitzeko azkeneko aginduaren indarraldia 2009ko uztailean bukatu zen, eta data horretan PSOEren gobernuak 2013 arte luzatzea onartu zuen.

Garoñako zentral nuklearrak 41 urte ditu eta

**EXPOSICION DE MOTIVOS**

El nuevo Gobierno español ha iniciado los trámites para prolongar la licencia de actividad de la central nuclear de Garoña hasta 2019. La vida útil inicialmente prevista para la central (40 años en las centrales españolas), finalizó el año pasado 2011. La última autorización de funcionamiento tenía su alcance hasta julio de 2009, fecha en la cual el gobierno del PSOE autorizó una prórroga hasta el 2013.

La central nuclear de Garoña es con 41 años, la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Espainian egun jardunean jarraitzen duen zentral nuklearrik zaharrena da. Gogoan hartu behar da Garoñako zentralak diseinua eta enpresa eraikitzailea partekatzen dituela, General Electric hain zuzen ere, joan den urtean larritasun handieneko istripua izan zuen Fukushimako zentral japoniarrarekin. Biak zentral bikiak dira, are gehiago sare elektrikora urte berean, 1971n, konektatu ziren.

Alderdi Popularraren gobernu berriak Garoñako zentralaren funtzionamendua 2019 arte luzatzeko asmoa arrazoi ekonomikoetan oinarritzen du, baina zentralaren energia ekarpena ez da ezinbestekoa eta 3 bider baino gehiago dago konpentsatua Gaztela Leonen instalatutako haize-potentziarekin soilik. Gainera, gogorarazi behar da Estatu espainiarrak gehiegizko argindar potentzia duela instalatua, eta 2004 urteaz geroztik argindar esportatzaile garbia dela. Benetako arrazoi ekonomikoa Nuclenor zentralaren enpresa titularrari mesede egitea da. Nuclenor Iberdrola eta Endesa enpresena da, bakoitzak jabetzaren %50 du eta, gutxienez beste 6 urtetan etekina aterako luke instalazio erabat amortizatu horretatik bestelako inolako kontraprestaziorik eman beharrik gabe.

Enpresak etekin hori lortuko du Garoña mantentzeak segurtasunarentzat suposatzen duen mehatxua mantentzearen kontura. Burgoseko zentralak erradizoa askatzeak Ebro ibaiaren arro osoari eragingo lioke, eta bertan 3 milioi pertsona bizi dira. Hurbilen dauden hirietako batzuk, besteak beste, Miranda de Ebro (32 km), Vitoria-Gasteiz (64 km), Bilbo (96 km), eta Laudio (108 km) dira. Fukushiman istripua izan eta gero zentralaren inguruko 30 km-ko eremu bat ebakuatu zuten, eta erradiazioak zentraletik 100 km-tara dauden laboreei eragin die.

central nuclear en activo más antigua de España. Hay que recordar que la central de Garoña comparte diseño y empresa constructora, General Electric, con la central japonesa de Fukushima que sufrió en marzo del año pasado un accidente nuclear de la máxima gravedad. Ambas son centrales gemelas e incluso se conectaron a la red eléctrica, en el mismo año 1971.

El nuevo gobierno del Partido Popular justifica su intención de prolongar el funcionamiento de Garoña hasta el año 2019 en razones económicas sin embargo su aportación energética es perfectamente prescindible y está compensada en más de 3 veces sólo con la potencia eólica instalada en Castilla y León. Además hay que recordar que el Estado español tiene un exceso de potencia eléctrica instalada, y desde 2004 es exportador neto de electricidad. La verdadera razón económica es favorecer a la empresa titular de la central Nuclenor, que es propiedad de Iberdrola y Endesa al 50% y que se beneficiaría, al menos otros 6 años, de una instalación totalmente amortizada sin ninguna contraprestación.

Este beneficio empresarial se logrará a costa de mantener la amenaza a la seguridad que supone la existencia de Garoña. Una liberación de radiación de la central burgalesa afectaría a toda la cuenca del Ebro, en la que habitan casi 3 millones de personas. Algunas de las ciudades más cercanas son Miranda de Ebro (32 km), Vitoria-Gasteiz (64 km), Bilbao (96 km), Llodio (108 km). Tras el accidente de Fukushima fue evacuada un área de 30 km. alrededor de la central y la radiación ha afectado a cultivos situados a 100 km. de la misma.

Euskal Legebiltzarrak 2009ko ekainaren 12an egindako bilkuran ekimen bat onartu zuen Gobernuari zentrala behin betiko ixteko eskatzeko, eta 2009ko uztailaren 5ean bukatzen zen ustiapen lizentzia luzatzearen aurka zegoela adierazi zuen. Euskadin gehiengoa energia nuklearraren aurka dago oro har, eta Garoñak martxan jarraitzearen aurka bereziki. Gasteizko alkatea ere, PPkoa, iragarritako luzapenaren aurka azaldu da. Beharrezkoa da aurkako jarrera hori ahalik eta bide gehinak erabilita adieraztea, erakundeetatik, gizarte mobilizazioak eginda, baita Garoñaren jabe diren konpainiei dagokienez ere: Iberdrola eta Endesa.

El Parlamento Vasco, en sesión de 12 de junio de 2009 aprobó una iniciativa por la que instó al Gobierno a su cierre definitivo y mostró su oposición a la prórroga de la licencia de explotación de la central que expiraba el 5 de julio de 2009. Es mayoritaria en Euskadi la oposición a la energía nuclear en general y a la continuidad de Garoña en particular, incluso el alcalde de Gasteiz del PP ha manifestado su oposición a la anunciada prorroga. Es necesario manifestar esta postura contraria por todos los cauces posibles, desde las instituciones, en movilizaciones sociales y también en relación a las compañías propietarias de Garoña: Iberdrola y Endesa.

Adierazitakoarengatik, Udalbatzari proposatzen diogu ondorengo akordioa har dezan

Por todo lo expuesto proponemos al pleno la adopción del siguiente

**AKORDIOA**

I.- Errenteriako Udalbatzak Espainiako gobernuari eta Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluari (CSN) eskatzen die Garoñako zentral nuklearrak martxan jarraitzeko baimena ez luzatzeko, eta ahalik eta azkarren behin betik ixteko.

II.- Jarrera horrekin koherente izateko asmoz, Errenteriako Udalak zentralaren konpainia jabeei, Iberdrola eta Endesari, eskatzen die 2013tik aurrera Garoña ustiatzen jarraitzeko asmoa alde batera utz dezaten.

III.- Mozio honen kopia ondorengoei bidaliko zaie: Industria Ministerioa, Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua (CSN) eta Iberdrola eta Endesa enpresak."

**ACUERDO**

I. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno de España y al Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) a no prorrogar el permiso de funcionamiento de la central nuclear de Garoña, y a proceder cuanto antes a su cierre definitivo.

II.- En coherencia con dicha postura el Ayuntamiento de Errenteria insta a las compañías propietarias de dicha central, Iberdrola y Endesa, para que desistan de seguir con la explotación de Garoña más allá de 2013.

III. De esta moción se remitirá copia al Ministerio de Industria, al Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) y a las empresas Iberdrola y Endesa."

Jarraian, EAJ/PNV taldeak ondoko **mozio alternatiboa** irakurri du:

Seguidamente el Grupo EAJ/PNV da lectura a la siguiente **moción alternativa**:

"2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Espainiar Estatuko zentralik zaharrena da.

"La central nuclear de Garoña es desde el año 2006 la más vieja del Estado Español.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

1971. Urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinatua, epe hori iazko martxoan gainditu zuelarik.

Entró en actividad el 2 de marzo de 1971 y fue diseñada para una vida útil de 40 años, plazo que expiró en marzo del pasado año.

Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren froga dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio.

Los sucesivos fallos a lo largo de su actividad demuestran que la central sufre serios problemas de seguridad a lo que hay que sumar un problema de agrietamiento consecuencia de la corrosión.

Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko lituzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak.

La prolongación de su funcionamiento supone un riesgo inadmisible para el medio ambiente y la seguridad y salud pública, poniando en riesgo la vida de millones de personas que residen en el entorno de afección en caso de accidente.

Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera.

Consciente de este riesgo, la sociedad de Euskal Herria, de Araba y de Gasteiz ha reclamado de manera reiterada y masiva en los últimos años el cierre inmediato de la central.

Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Espainiarreko Gobernuari zentralaren itxiera behin eta berriz eskatuz.

También desde las instituciones, tanto el Gobierno Autonómico como la Diputación de Araba y el Ayuntamiento de Gasteiz se han posicionado en numerosas ocasiones a lo largo de los últimos diez años en esta materia y han reclamado al Gobierno del Estado Español la claurusa de dicha central.

Frogatuta dago Garoñaren ustiapen baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute.

Está demostrado que la prolongación de la licencia de explotación de la central nuclear de Garoña no es justificable ya que su aportación energética está sobradamente cubierta por sistemas de generación renovable.

Hala ere, azken urteotan Espainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarriz. Halako erabaki bat Espainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoen interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu.

A pesar de todo esto, en los últimos años los diferentes Gobiernos del Estado Español se empeñan en prorrogar la vida de la central poniendo en riesgo el medioambiente y la salud de millones de ciudadanos y diudadanas. Una decisión que solo puede responder a la connivencia por parte del Gobierno del Estado Español con los intereses lucrativos de las

compañías eléctricas propietarias.

Ekonomia ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu.

Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onartua izan dadin:

1. Errenteriako udaletxeko udal batzarrak Espainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eskatzen dio Garoñako zentral nuklearra itxi dezan 2013 epe mugan.

2. Errenteriako udaletxeko udal batzarrak Garoñako zentral nuklearra 2013 ko epe mugan isteko, xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du.

3. Errenteriako udaletxeko udal batzarrak energia nuklearraren inguruan eztabaida zabal eta garden bat egiteko konpromezua hartzen du, Garoñako zentral nuklearrek suposatzen duen arriskuez berri emanez.

4. Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz.

5. Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri, Industria, Energia

Es urgente y necesario ecologizar la economía. Hacer del nuestro un territorio sostenible precisa no ponerlo en situaciones de riesgo extremo, como la pervivencia de la actividad de Garoña supone, y hacer una apuesta clara, inequívoca e inaplazable por las fuentes de energía renovables y ecológicas junto a un replanteamiento del nivel de consumo energético actual.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, presentamos a este pleno del Ayuntamiento de ERRENTERIA, para su debate y aprobación, la presente declaración:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria reclama al Gobierno del Estado y a su Ministerio de Industria, Energía y Turismo el cierre de la Central Nuclear de Garoña como fecha límite en 2013.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se compromete a adoptar o secundar aquellas iniciativas que considere oportunas y adecuadas encaminadas a conseguir el cierre de la Central Nuclear de Garoña como fecha límite en 2013.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se compromete a promover y fomentar un debate abierto y transparente en torno a los riesgos derivados de la central nuclear de Garoña.

4.- Hacemos una apuesta clara por la priorización del ahorro energético mediante la reducción del consumo y el uso de fuentes renovables ecológicas a partir de un sistema público de energía.

5.- El presente acuerdo plenario será remitido por correo tanto al Presidente del Gobierno Español, Sr. Mariano Rajoy, como al Ministro de Industria,

eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari."

Ondoren, mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du justu iragan asteazkenean, udal taldeei mozioa banatu ondoren, atera zela albistea non Garoñako zentralgileak akats posibleen berri eman zuen. Bere iritziz, abisu honek erakusten die zentral nuklear horrek izan dezakeen segurtasuna. Bere iritziz oinarrizko zerbaiten aurrean daude, ez baita energia nuklearrari buruzko eztabaida batean —behintzat berak ez du horren asmorik— gutxienez har ditzaketen arriskuen aurrean baizik. Horrela, uste du, gutxiengo-kontzeptu horrek Garoñako zentrala ixtera eraman beharko lukeela. Izan ere, berrogei urte baino gehiago funtzionamenduan daramazkien zentrala baita. Gainera, oraintxe bertan 2013 arteko luzamendu batean dago, eta oraingo Gobernu berriak 2019 arte luzatzea planteatzen ari da. Toki ezberdinetan gertatzen ari den guztiarekin, uste du jarduera hori ez dela batere desiragarria. Gainera, soilik uler liteke energia nuklearraren aldeko apustua egiten duten aldetik, zeina berak errespetatzen badu ere, ez dator bat. Edonola ere, deigarria egiten zaio azken Ministro Kontseiluak energia berriztagarrien sariak bertan behera utzi izana, besteak beste, lanpostu gehien sortzen ari zen arloa zelako, eta arriskuan jartzen duelako lanpostu horien bideragarritasuna, hala nola aurreko Gobernuak martxan ipinitako energia berriztagarriak. Beraz, bada, segurtasun-kontzeptua aintzat hartuta, Garoña ixteko unea dela pentsatzen du. Bestalde, EAJ alderdiak puntu zenbait planteatu ditu —jada banatu dituztenak—, eta horiek, bere aburuz, ebazpen-zatiari zegozkion puntu zenbait hobetzen dituzte. Hortaz, berak ez luke inolako arazorik izango hasierako mozioa oinarritzat hartuta, Eusko Alderdi Jeltzaileak

Energía y Turismo, Sr. José Manuel Soria, así como a la compañía eléctrica Iberdrola propietaria del 50% de la central."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que justo cuando se repartió la moción a los Grupos municipales, el miércoles pasado, salió la noticia de que el fabricante de la central de Garoña avisa de posibles fallos. Este aviso les da una muestra de la seguridad que les puede despertar esa central nuclear. Piensa que están ante algo elemental, no es una discusión sobre la energía nuclear, al menos no es su intención plantear esa discusión, sino que es algo más elemental como es el concepto mínimo de asunción de riesgos. Ese concepto mínimo les debiera llevar a la conclusión de que la Central de Garoña debe ser cerrada. Es una central que lleva en funcionamiento más de cuarenta años, ahora mismo tiene una primera prórroga hasta 2013 y el actual nuevo Gobierno ha planteado una posible prórroga hasta 2019. Con todo lo que está ocurriendo en distintos lugares, cree que es una actitud que deja bastante que desear y que solo es entendible desde una apuesta por la energía nuclear, respetable pero que personalmente no comparte. En todo caso llama la atención que este mismo Gobierno, en el último Consejo de Ministros ha aprobado la suspensión de las primas a las energías renovables, que era uno de los sectores donde más trabajo se estaba creando, y pone en peligro la viabilidad precisamente de esos puestos de trabajo y de la apuesta por las energías renovables que el anterior Gobierno había puesto en marcha. Desde un concepto mínimo de seguridad, piensa que es el momento de cerrar Garoña. El PNV ha planteado una serie de puntos que han sido repartidos y que a su entender mejoran en algunos aspectos la redacción inicial

planteaturiko puntuak ere onartzeko.

en cuanto a los puntos de resolución. Por su parte no habría ningún problema en que partiendo de la moción inicial, se asuman también los puntos planteados por el Partico Nacionalista Vasco.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du adosturiko puntuak irakurriko dituela. Hots, 3., 4. eta 5. puntuak sartuko lituzkete, eta horiek ondorengo eran geratuko lirateke: “III. Errenteriako Udalbatzak konpromisoa hartzen du Garoñako zentral nuklearretik erator litezkeen arriskuen inguruan eztabaida irekia eta garbia sustatzeko eta indartzeko”. “IV. Energia-aurrezpenaren aldeko apustu argia egiten dugu, horretarako kontsumoa murriztuz eta energia publikoko sistema batetik iturri berriztagarri ekologikoen erabilpena eginez”. “V. Udalbatzaren akordio hau posta bidez Espainiako gobernuburu Marino Rajoy-ri, Industria Ministro Jose Manuel Soria jaunari, hala nola zentralaren % 50aren nagusi den Iberdrola konpainiari”. Euren aburuz, lehenengoa eta bigarren puntuak gehiago ziren idazketa-kontuak, eta horregatik adostu dute mozioa, eta horregatik emango dute aldeko bozka, gaineratu du.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que va a dar lectura a los puntos que habían consensuado, se trataba de introducir los puntos 3, 4 y 5, que quedarían de la siguiente manera: “III.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se compromete a promover y fomentar un debate abierto y transparente en torno a los riesgos derivados de la central nuclear de Garoña”; “IV.- Hacemos una apuesta clara por la priorización del ahorro energético mediante la reducción del consumo y el uso de fuentes renovables ecológicas a partir de un sistema público de energía”; “V.- El presente acuerdo plenario será remitido por correo tanto al Presidente del Gobierno Español, Sr. Mariano Rajoy, como al Ministro de Industria, Energía y Turismo, Sr. José Manuel Soria, así como a la compañía eléctrica Iberdrola propietaria del 50% de la central”. Entendían que el primer y segundo punto era más una cuestión de redacción que de contenido, por lo que han tenido a bien consensuar la moción y votarán a favor del “remix”.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du mozioarekin ados daudela, eta uste du EAJ sartutako paragrafoak mozioa hobetzen dutela, hain zuzen energia-iturriak gero ere beharko dituztelako. Kontua da energia horiek hautatzen jakin eta ingurumenerako egokiena izateko bitartekoak jarri behar dituztela, baita energiaren afera honek behar dituen gainontzeko guztietarako.

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que estan de acuerdo con la moción y cree que los párrafos introducidos por el PNV la enriquecen porque efectivamente fuentes de energía se necesitarán. Es cuestión de saber elegir y poner los medios para que esas fuentes sean las más idóneas para el medio ambiente y para todos los demás asuntos que conlleva esta situación del tema energético.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du euren Taldeak hausnarketa egin nahi duela Garoñari luzamendu bat emateak nor onuratzen duen ikusteko.

* Interviene el Sr. Díez (O.E. BILDU) manifestando que desde su Grupo quieren hacer una reflexión para ver a quien beneficia la prórroga de Garoña.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Errenteriako Ezkerreko ordezkariak zioen moduan, Garoñak jada baditu 40 urte martxan dagoela eta 50 urte arte luzatu nahi dute. Berak dakienez, munduan ez dago zentral nuklear bakar bat ere 43 urte baino gehiago lanean aritu denik, eta beraz, Garoñako zentral nuklearra une honetan esperimentu nuklear ezezagun bat izango litzateke. Nazioarteko industria nuklearra ez da gauza izan azken hamarkadan energia nuklearraren gainbehera geldiarazteko. Horrela, 2010ean energia berriztagarriek mundu mailan energia nuklearra baino argi-indar potentzia handiagoa erdietsi zuten. 2011ko apirilean munduan zehar 437 erreaktore nuklearrek funtzionatzen zuten, 2002ko urtean baino 7 gutxiago. Egoera honek —dio— industria nuklearrarentzat oso kezkagarria izan behar du, zeren eta kontuan izanik erreaktoreak 40 urterako diseinatu zirela, ezinezkoa izango dela gaur eguneko parke-nuklearrarekin mantentzea nuklear jatorriko elektrizitate-ekoizpena. Horrela, 2025. urtea baino lehen zaharkituta geratuko liratekeen 209 erreaktore ordezkatzeko 19 egunez behin erreaktore bat martxan jarri beharko litzateke, eta hori ezinezkoa izango litzakeela uste du. Hori da erreaktore zaharren bizia 40 urtetik haratago zabaltzarren nuklear ekonomia indartsuak baliatzen duen funtsezko arrazoietariko bat presio-ahalmen

tekniko zein ekonomikoa guztia —handia, alegia— egiteko. Gaur egun lanean ari diren 437 erreaktoreek bataz beste 26 urte dituzte. Beste 130 zerbitzuz kanpo daude, eta horien bataz besteko bizia 22 urtekoa izan da. Haatik, orain, 40 izan eta 50era luzatu nahi duten Garoñakoaz hitz egiten ari dira. Beraz, lehen zioen moduan, munduan 43 urte gaindituko lituzkeen esperimentu bakarra izango litzateke. Garoña ez da, ezta inolaz ere, energia merkearen adibidea, izan ere, eraiketa

Como decía el representante de Errenteriako Ezkerra, Garoña tiene ya 40 años de vida e intentan una ampliación adicional hasta los 50 años. En el mundo no existe ningún reactor nuclear comercial que haya operado más de 43 años, por lo tanto la Central Nuclear de Garoña sería una especie de experimento nuclear inédito en este momento. La industria nuclear internacional no ha sido capaz de frenar el declive de la energía nuclear a lo largo de la última década. En el 2010 las energías renovables habían alcanzado ya a nivel mundial una potencia global superior a la energía nuclear. A primeros de abril del año 2011 había 437 reactores nucleares funcionando en el mundo, siete menos que en el año 2002. Este panorama es muy preocupante, pero para la industria nuclear, porque considerando que los reactores se hayan diseñado para 40 años de vida, ya no será posible la reposición del parque nuclear actual necesario para mantener el nivel de producción eléctrica de origen nuclear. Reponer los 209 reactores que caducarían antes del 2025 supondría poner en marcha un reactor cada 19 días, algo irrealizable. Esta es una de las razones fundamentales para que la poderosa economía nuclear emplee toda su capacidad de presión, tanto técnica como económica, que es mucha, en extender la vida de los viejos reactores nucleares más allá

de los 40 años. En la actualidad la media de esos 437 reactores en explotación es de 26 años. Hay 130 reactores que están fuera de servicio, cuya vida media ha sido de 22 años, y ahora están hablando de Garoña que tiene 40 años y la quieren alargar hasta los 50 años. Como decía antes, será la única en el mundo que sobrepase los 43 años de experimento. Garoña no es ningún ejemplo de energía barata, la rentabilidad económica de su construcción y explotación



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

bera eta ustiapena, administrazio publikoak bermatu zituen eskumenen eskualdaketa-kostuak arautzen zituen sistema bat baliatuz egin zen, horrek arlo elektrikoarentzat hirurehun eta berrogeita mila milioi pezetako diru-laguntza suposatu zuelarik, herritarrek 35 urtez erreziboaren bidez ordaindutakoa. Alabaina, orain luzamenduaz soilik jabea onuratuko da, administrazioa ez delako hortaz baliatuko. Diotenez, gainera, Garoñak ez du inolako eraginik elektrizitatearen prezioan, izan ere, elektrizitatearen prezioa Garoñarekin edo gabe berdina izango litzakeelako. Haren ustez, Nuklear Segurtasuneko Komite Nazionalaren txostenak dioena dioela, Garoñako erreaktore nuklearrak arazoak izan ditzake, zeren eta, Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) zioen modura, 60. urte inguruan izandako eraikitze-prozesuko akats batengatik tentsio baxuko herdoilak eraginiko pitzadurak egiten dira, eta horrek, pitzadura handiagoak egitera eroan dezake. Era berean, bielak hausteko

estuvo garantizada por la adminsitración pública a través del sistema regulatorio de los costes de transición de la competencia, que supuso para el sector eléctrico una subvención de trescientos cincuenta mil millones de pesetas pagadas por los ciudadanos a través del recibo de la luz durante 35 años. Sin embargo, el único que se va a beneficiar ahora de la prórroga va a ser el propietario, en lugar de ser ni siquiera la propia administración. Garoña en nada influye en el precio del mercado eléctrico, el precio de la electricidad será el mismo con o sin Garoña. A pesar del informe del Comité Nacional de Seguridad Nuclear, el reactor nuclear de Garoña no está libre de problemas en su integridad, como decía el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) debido a un defectuoso proceso de fabricación en los años 60 padece un problema de agrietamientos por corrosión bajo tensiones, causante del agrietamiento generalizado de las penetraciones. También tiene problemas de rotura en otras bielas,

arazoa du, berak ez daki oso ondo zer diren horiek, baina hautsi egiten dira teknikariek eginiko txostenaren arabera. Eta Zentral honek eusteko duen hesia Fukushimakoak zuen berdina da, zeinak argi eta garbi erakutsi baitzuen ez zuela ondo funtzionatu, eta ondorioz, ingurumena nola kutsatu zuen. Gainera, Garoña hozteko sistema Ebro ibaitik zuzenean hornitzen da, baina horrek, hainbat dokumentaletan ikusi ahal izan dutenez, uren kutsadura termikoa dakar eta Sobron urtegiko tenperatura igotzea. Horrela, Greenpeacek kontratutariko enpresa independente batek Ebron zehar eta Sobroneko urtegian neurketak egin zituen 2011n bi aldiz, eta horien arabera, Ebroko Hidrografia Konfederazioak ezarritako mugak askotan gainditzen ziren. Tenperatura horiek hondatu egiten dute ekosistema; Ebroko ur-emaria

que no sabe muy bien lo que son, pero tiene roturas según los técnicos que informan. Y la barrera de contención que tiene esta central, es la misma que tenía la de Fukushima donde puso claramente en evidencia su mal funcionamiento y como consiguió contaminar el medio ambiente. El sistema de refrigeración de Garoña que se alimenta directamente del Ebro, como se ha visto en más de un documental, está produciendo la contaminación térmica de las aguas y una elevación térmica del embalse de Sobrón. Una empresa de inspección independiente, contratada por Greenpeace, ha realizado mediciones a lo largo del Ebro y en el embalse de Sobrón durante dos periodos del año 2011, obteniendo medidas que superan en mucho los límites térmicos establecidos por la Confederación Hidrográfica del

gero eta txikiagoa da, eta zentralak urtegiko tenperatura igotzen du. Gaur egun hozte-dorreak bezalako teknikak daudenez, Garoña hozteko ia-ia ez litzateke beharrezkoa izango Ebroko urez baliatzea, eta horregatik, uste du, sistema horiek ezartzea exijituko beharko litzakeela. Beraz, ikusten den moduan, jabetzarentzat onurak asko dira, industria nuklearraren presioa ikaragarria da eta herritarrentzako arriskuak aintzat hartzeko modukoak dira, nabarmendu du.

Ebro. Estas temperaturas deterioran el ecosistema, los caudales del Ebro son cada vez menores y la central aumenta la temperatura del embalse. Dado que existen procesos técnicos, como las torres de refrigeración, que hacen escasamente necesarias las aguas del Ebro para la refrigeración de Garoña, debería exigirse la implementación de tales sistemas. Como se vé, en la prórroga operativa de Garoña, los beneficios para el propietario son muchos, la presión de la industria nuclear es enorme y los riesgos para el ciudadano muy considerables.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Adosturiko aldaketak sartu dituzte, hau da, Errenteriako Ezkerra eta Bildu udal taldeek aurkezturiko **jatorrizko mozioaren 3. puntua kentzea** eta EAJ/PNV aurkezturiko **mozio alternatiboaren 3., 4. eta 5. puntuak sartzea**.

Incluídas las modificaciones acordadas, consistentes en: **eliminar el punto 3º de la moción original** presentada por los Grupos Municipales Errenteriako Ezkerra y Bildu**, e incorporar los puntos 3, 4, y 5 de la moción alternativa** presentada por EAJ/PNV**.**

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 19 botorekin (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Errenteriako Ezkerra) eta abstentzio 1ekin (PP),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 19 votos a favor (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Errenteriako Ezkerra) y 1 abstención (PP),

**E R A B A K I D U**

I. Errenteriako Udalbatzak Espainiako gobernuari eta Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluari (CSN) eskatzen die Garoñako zentral nuklearrak martxan jarraitzeko baimena ez luzatzeko, eta ahalik eta azkarren behin betik ixteko.

II. Jarrera horrekin koherente izateko asmoz, Errenteriako Udalak zentralaren konpainia jabeei, Iberdrola eta Endesari, eskatzen die 2013tik aurrera Garoña ustiatzen jarraitzeko asmoa alde batera utz dezaten.

III. Errenteriako udaletxeko udal batzarrak energia nuklearraren inguruan eztabaida zabal eta garden

**A C U E R D A**

I.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno de España y al Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) a no prorrogar el permiso de funcionamiento de la central nuclear de Garoña, y a proceder cuanto antes a su cierre definitivo.

II.- En coherencia con dicha postura el Ayuntamiento de Errenteria insta a las compañías propietarias de dicha central, Iberdrola y Endesa, para que desistan de seguir con la explotación de Garoña más allá de 2013.

III.- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se compromete a promover y fomentar un debate



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

bat egiteko konpromisoa hartzen du, Garoñako zentral nuklearrek suposatzen duen arriskuez berri emanez.

abierto y transparente en torno a los riesgos derivados de la central nuclear de Garoña.

IV. Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz.

IV.- Hacemos una apuesta clara por la priorización del ahorro energético mediante la reducción del consumo y el uso de fuentes renovables ecológicas a partir de un sistema público de energía.

V. Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri, Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.

V.- El presente acuerdo plenario será remitido por correo tanto al Presidente del Gobierno Español, Sr. Mariano Rajoy, como al Ministro de Industria, Energía y Turismo, Sr. José Manuel Soria, así como a la compañía eléctrica Iberdrola propietaria del 50% de la central.

**8. BILDU, PSE, PNV, PP eta Errenteriako Ezkerra taldeek amiantoaren biktimei buruz aurkezturiko mozioa.**

**8.- Moción que presentan los Grupos BILDU, PSE, PNV, PP y Errenteriako Ezkerra en relación a las víctimas del amianto.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du: Honek hitzez hitz zera dio:

Leída por el Secretario la siguiente moción que literalmente dice:

"Iragan abenduaren 4an zendu zen Errenteriako biztanle Angel Robles jauna. Angel Luzuriaga Fagorreko langilea izan zen eta, bere gaixotasuna lanbideak eragina zela ukatzen ziotelako, komunikabide zenbaitetan salatu ondoren, hil zen. Urtarrilaren hasieran Gipuzkoako Gizarte Segurantzak aitortu du lanbide-gaixotasun hark amiantorekin lana egin zuelako eta horregatik izan zuela biriketako minbizia.

"El pasado 4 de diciembre falleció el vecino de Errenteria Angel Robles. Ángel fué trabajador de Luzuriaga Fagor y murió tras haber denunciado en algunos medios de comunicación que se le negara el origen profesional de su enfermedad. A principios de este mes de enero la Seguridad Social de Gipuzkoa ha reconocido como enfermedad profesional el cáncer de pulmón por exposición al amianto que padeció.

Gertaturikoa ez da zerbait berria, zoritxarrez ezta aparteko zerbait ere. Datuen arabera azken hogeita hamar urtetan ia-ia 25.000 lagun aritu dira lanean amiantorekin. Iturri zenbaitek baieztatzen du pertsona horietatik hirutik batek heriotza goiztiarra izango duela. Era berean, Espainian pleura-minbizia dela eta, urteko hiltzen diren 200 baino lagun gehiagoetatik gehien-gehienak

Lo ocurrido no es algo nuevo ni desgraciadamente excepcional. Los datos nos dicen que cerca de 25.000 personas han trabajado con amianto en los últimos treinta años. Algunas fuentes afirman que una de cada tres de esas personas morirán de forma prematura. Asimismo, buena parte de los más de 200 fallecimientos anuales por cáncer pleural que se registran en España están



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

amiantoagatik izan dira, eta berriro eginiko epidemiologia-azterketen arabera, 2007 eta 2016 artean 1.321 lagun hilko dira mesoteliomagatik.

asociados a la exposición histórica al amianto y, según las proyecciones epidemiológicas más recientes, entre 2007 y 2016 fallecerán 1.321 personas por mesotelioma.

Kontuan hartzen badugu amiantoak eragindako gaixotasunaren sortasun-epe luzeak direla, erraza da ulertzea askotan amiantorekin lanean arituriko enpresak jada desagertuta egoten direla, eta ondorioz, kaltea konpentsatzeko bideraturiko jarduketa juridikoek ez dute bidea egiteko aukerarik izaten. Argudio hauetan oinarrituta, esaterako, Frantzia edo Belgikak diru-funtsak jarri dituzte biktimei kalte-ordainak emateko.

Si tenemos que cuenta los largos periodos de latencia de las enfermedades producidas por el amianto es fácil entender que muchas veces, las empresas donde se produjeron las exposiciones ya han desaparecido, con lo que las actuaciones jurídicas dirigidas a la compensación del daño no tienen posibilidades de abrirse camino. En base a estos argumentos hay países como Francia o Bélgica que ya han establecido fondos de compensación/indemnización como método para indemnizar a las victimas.

Hori guztiagatik, Errenteriako Udaleko BILDU, PSE, PNV, PP eta Errenteriako Ezkerra udal taldeek proposatzen dute hartzea ondoko

Por todo ello los grupos municipales GRUPOS BILDU, PSE, PNV, PP y Errenteriako Ezkerra del Ayuntamiento de Errenteria proponemos adoptar los siguientes

AKORDIOAK

1. Errenteriako Udalak berresten ditu aurreko Udalbatzak hartutako akordioak eta konpromisoa hartzen du ahalik eta epe laburrean beroriek gauzatzeko.

2. Errenteriako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

.- Osalani eska diezaion amiantoren inguruan lanean aritu diren langile-erretiratuei, osasuna aldetik begiratzearren, protokolo berezia aplikatzeko, eta protokolo zehatza aplikatzeko amiantoaren inguruko gaixotasunak hautemateko.

.- Amiantoarekin lanean aritu izanaren ingurukoei gaixotasun berriak harrapatuz gero, jarduketa-protokolo baten sorketa azter dezan.

ACUERDOS

1) El Ayuntamiento de Errenteria se ratifica en los acuerdos tomados en Pleno por la anterior Corporación Municipal y asume el compromiso de llevarlos a cabo en el plazo de tiempo más corto posible.

2) El Ayuntamiento de Errenteria solicita al Gobierno Vasco:

.- Instar a Osalan para la aplicación del protocolo de vigilancia sanitaria específica de trabajadores jubilados que han estado expuestos a amianto y la aplicación de un protocolo específico para la detección de enfermedades asociadas a la exposición a amianto.

.- Estudiar la creación de un protocolo de actuación ante la detección de nuevos casos de enfermedades asociadas a la exposición laboral a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

amianto

.- Aseguru-etxeekin kolaborazio-bideak ezar ditzan, lanbide-gaixotasunen diagnosia eta tratamendu prozeduren kostuak (denboraldiko ezgaitasun aldiak) aseguru-etxeen gain izateko.

.- Establecer mecanismos de colaboración con la Mutuas que pasen por la repercusión a las Mutuas del coste de los procedimientos diagnósticos y tratamiento de la enfermedad profesional (periodos de incapacidad temporal) de los trabajadores en activo.

.- Amiantoren biktimentzako konpentsazio-fondo bat sor dezan, hain zuzen kalteturiko pertsonei kalte-ordainak bermatuko ahal izateko”.

.- La creación de un Fondo de Compensación para las víctimas del amianto que garantice las indemnizaciones para las personas afectadas.”

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du bere oso hurbileko pertsona batek, egun erretiratua dagoenak, erretiro hori kezka-puntuarekin bizi du bere lan-bizitza amiantoari lotua izan zelako. Kontu hau pertsonala da, baina iragan igandean “El Pais” egunkariak argitara eman zuen artikulu bat irakurtzen badute —bere iritziz, ona eta, besteak beste, Udal hau aitatzen duena—, ohartuko dira ez dela arazo pertsonala, baizik eta, OSALANek emaniko zifren arabera, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoan bost mila lagun baino gehiago ukituta daudenena. Horrez gain, ordea, hil direlako, badira beldurrarekin bizi ezin diren pertsonak. Horrela, pasa den abenduan herri honetako Angel Robles zendu zen, Victorio Luzuriaga fabrikan berrogei urte lana egin ondoren, 2007az geroztik erretiratuta zegoena. Angelek ospitalea utzi eta bere emazte Palmirarekin etxera joatea erabaki zuen amiantoa eta honen ondorioak salatzeko. Bestalde, uste du gai honen inguruko oso artikulu onak eman direla argitara Noticias de Gipuzkoa, Deia edo Gara egunkarietan, non Angelek zein Palmirak, euren biziaren, pasadizoen eta egoeraren berri ematen baitute. Angelek eta Palmirak ez zuten nahi euren

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que hay una persona muy cercana a él, que está ya jubilada, pero está viviendo su jubilación con un cierto miedo porque en su vida laboral trabajó con amianto. Esto, que no deja de ser una situación personal, si leen un artículo que salió el pasado domingo en El Pais, que es un buen artículo y entre otras cosas acaba citando a este Ayuntamiento, podrán ver que no es un problema personal, sino que es algo que afecta a más de cinco mil personas según cifras de OSALAN, en este momento, en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Pero hay personas que no pueden vivir con miedo porque ya se han muerto, el pasado 4 de diciembre falleció el vecino de este pueblo Angel Robles que llevaba prejubilado desde 2007, tras haber trabajado cuarenta años en la fábrica de Victorio Luzuriaga. Angel dicidió abandonar el hospital e irse a su casa con Palmira, su mujer, para denunciar el amianto y sus consecuencias. Hay muy buenos artículos tanto en Noticias de Gipuzkoa como en Deia o en el Diario Gara, donde tanto Angel como Palmira relataban su vida, su vivencia y su situación. Angel y Palmira no querían que su

egoera isilean pasa zedin, besteak beste, hil ondoren aitortu zaion zerbait salatu nahi zutelako. Hori horrela, abenduaren 21ean Gipuzkoako Gizarte Segurantzak aitortu zuen Angelen heriotza, amiantorekin eta beste minbizi-eragileekin ibili zelako izan zuela biriketako minbizia. Angel, amiantoren ondorioz hil diren 155 lagunetarik bat izan da, zenbait

situación pasase desapercibida, entre otras cosas para denunciar algo que se le reconoció después de muerto. Así, el 21 de diciembre, la Seguridad Social de Gipuzkoa reconocia que el fallecimiento de Angel era debido a contingencia profesional de cancer de pulmón por exposición al amianto y otros elementos cancerígenos. Angel ha sido una de las 155 personas que han muerto a consecuencia del amianto, cifras que

iturriren arabera, hiru edo laurekin biderkatu litezkeen zifrak. Berak uste du zendu diren pertsona hauek eta erretiroa beldurrez bizi duten pertsonek merezi dutela erakundeek urratsak ematea, beste garai batzuetan amiantoa barra-barra erabili izanaren ondorioak arintzeko. Uste du, halaber, Udal gisa urrats gehiago eman behar lituzketela, eta, batez ere Eusko Jaurlaritzak. Bere aburuz, argi eta garbi dago arazoa existitzen dela, frogatuta dagoela eta aurre egiten behar zaiola. Horregatik, Angel gogoan, hala nola beldurra duten pertsona guztiak, eta, orobat horiekin bizi diren pertsona guztiak, eskatzen du Talde eta bertan dauden guztiek eginiko lanari esker aurkezturiko mozioaren aldeko botoa ematea.

según algunas fuentes se pueden multiplicar por tres o por cuatro. Personalmente piensa que estas personas que han muerto y aquellas que están viviendo su jubilación con miedo, merecen que las instituciones den pasos para paliar las consecuencias del empleo masivo del amianto que se dio en otros tiempos. Como Ayuntamiento deben dar más pasos y sobre todo el Gobierno Vasco también debe dar más pasos. El problema existe, está constatado y hay que afrontarlo, y por ello, recordando a Angel, a todas esas personas que tienen miedo y recordando también a todas esas personas que conviven con ellos y ellas, es por lo que pide el voto a favor de la moción, que ha sido presentada por todos los Grupos y que es fruto del trabajo de todas y todos los presentes.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du bere Taldea ados dagoela eta bere egiten dituela Errenteriako Ezkerraren eledunak esandakoak. Gainera, pozten dira, gai honek denen adostasuna eragin duelako, eta Udalbatza osoa inplikatu delako, hala nola aurreko bi legegintzaldietan ere eman zelako, eta horrek bere balorea duelako.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que su Grupo muestra la conformidad y asume la intervención del portavoz de Errenteriako Ezkerra. Se alegran porque éste ha sido uno de los temas que ha contado con unanimidad y con la implicación de toda la Corporación, ya mantenida a lo largo de dos Corporaciones diferentes, que tiene su valor.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du kontu hau, denei eragin dien zerbait delako, azpimarratu nahi zuela, zeren eta Angelen heriotza eta Palmira eta bere seme-alabek bizi izan duten drama, zuzeneko agonia

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que quería incidir en algo que a todos les ha afectado, porque ha sido una especie de agonía en directo el hecho de la muerte de Angel y el drama familiar que ha

moduko bat izan da. Uste du, Udalak lehenago hartu zituen akordioak direla eta, esan dezaketela Errenteria arazo honekiko gehien jabeturiko herri bat dela. Gainera, Eusko Jaurlaritza ematen ari den urratsak ildo beretik doazenez, uste du azkar ibili behar dela, langilea kutsatu ondorengo 20 edo 30 urte pasa eta gero azaltzen den gaixotasuna delako. Horrez gain, haren iritziz, diruari dagokion arloa —jakina, osasunarena aparte utzita— azkartu egin behar da. Horregatik, hain zuzen ere, bidezkoa iruditzen zaio amiantoaren biktimentzako konpentsazio-fondo bat sortzea, kalteturiko pertsonei kalte-ordainak bermatuko lituzkeenak. Hori guztiagatik, eta mozioan herritarrak hainbeste hunkitu dituen gaia —gaixotasuna duenarentzat hain larria dena— garatzen den bezala garatzen delako, zalantzarik gabe, ados daude berori arintzeko egin daitekeen guztiarekin.

supuesto para Palmira y sus hijos. Efectivamente cree que por otros acuerdos que en ocasiones anteriores ha tomado el Ayuntamiento, se puede decir que Errenteria es uno de los municipios más concienciados ante ese problema. Los pasos que se están dando desde el Gobierno Vasco van en la misma línea, y hay que ir rápido porque es una enfermedad que tarda en manifestarse 20 o 30 años después de haber sido contaminado el trabajador y aunque sea el aspecto económico, aparte naturalmente del sanitario, debe agilizarse. Por esto le parece correcta la creación que se propone de un fondo de compensación para las víctimas del amianto que garantice las indemnizaciones a las personas afectadas. Por todo ello y por el desarrollo que se hace en la moción sobre este tema que ha llegado tanto a la ciudadanía y que es tan grave para quien lo padece, por supuesto están de acuerdo en aquello que se pueda hacer para mitigarlo.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Onartzea BILDU, PSE, PNV, PP eta Errenteriako Ezkerra taldeek amiantoren biktimen inguruan aurkezturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Aprobar la Moción que presentan los Grupos BILDU, PSE, PNV, PP y Errenteriako Ezkerra en relación a las víctimas del amianto, que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**9. Errenteriako Ezkerrak eta O.E. BILDUk aurkezturiko mozioa, Gipuzkoako azpiegiturako obra handiak gelditzeko.**

**9.- Moción presentada por Errenteriako Ezkerra y O.E. BILDU por la paralización de las grandes obras de infraestructuras en Gipuzkoa.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du: Honek hitzez hitz hauxe dio:

Leída por el Secretario la siguiente moción que literalmente dice:

“Urteak dira erakunde publikoetatik ingurumenean, gizartean eta ekonomian izugarrizko eragina duten azpiegitura-lan handien aldeko apustua egiten hasi

“Hace muchos años que desde las instituciones públicas se apostó por grandes obras de infraestructuras con un gran impacto en el medio



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

zirela. Apustu horrek garapen-eredu jakin bat bultzatu du eta, aldi berean, pixkanaka argumentuz hustutako eta itxura hutsean oinarritutako gizarte-eredua ere hedatu da. Herritarron ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua ardatz dituen ereduaren alde urteetako lana egin dugun herri-mugimendu eta taldeok Gipuzkoa mailan bat egin eta azpiegitura-lan handiak gelditzeko eta garapen-ereduaren aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzeko informazio, hausnarketa, eztabaida eta mobilizazio dinamika berria jarri dugu abian. Hala, dinamika horren buruan, datorren otsailaren 4an, Donostian, elkarrekin deitu dugun manifestazioa genuke.

Adierazi behar da, Gipuzkoa mailan baterako dinamika bultzatzearen arrazoi nagusietako bat orotariko azpiegitura-lan handien alde, azken hileotan, Gipuzkoan burutu duten kanpaina politiko eta mediatiko bortitza izan dela. Kanpaina horretan, besteak beste, Abiadura Handiko Trena, Errauskailua, Jaizkibelgo superportua edota Hondarribiko aireportuaren hedapena jarri dituzte Gipuzkoaren etorkizuna bermatzeko ezinbesteko elementutzat. Horretarako ordea, ez dute inolaz ere, azpiegitura-lan handi horiek ingurumenean, gizartean eta ekonomian izango lituzketen kalteen inguruko eztabaida sozialik egin, ez eta egiten utzi ere, are gehiago, ekonomia mailan hain ezkorra den testuinguru honetan.

Hala, garapen-eredu jakin hori edota garapena bera zalantzan jartzeko joera handiagoa antzematen ari gara gizartean. Herri-mugimenduek behin eta berriz salatu dituzte “interes orokorraren”

ambiente, la sociedad y la economía. Esa apuesta se ha fundamentado en un modelo de desarrollo muy concreto junto con el cuál se ha ido desplegando poco a poco todo un modelo social basado en la pura imagen de unos argumentos completamente vacíos. Movimientos sociales y colectivos que trabajamos desde hace años en oposición a diferentes proyectos y agresivos planes de infraestructura y por un modelo que respete la naturaleza y las condiciones de vida de la población, nos hemos unido para impulsar una dinámica de información, reflexión, debate y movilización que culminará con una manifestación conjunta por la paralización de las grandes obras de infraestructura en Gipuzkoa convocada para el 4 de febrero en Donostia.

Una de las principales razones de impulsar esta dinámica conjunta en este momento preciso ha sido la feroz campaña de presiones políticas y mediáticas a favor de todo tipo de infraestructuras de elevado impacto ecológico, económico y social lanzada en los últimos meses en Gipuzkoa. Entre esos grandes proyectos cabe destacar por su tamaño o especial virulencia mediática, el Tren de Alta Velocidad, la incineradora, el puerto exterior de Pasaia o la ampliación del aeropuerto de Hondarribia. Hemos tenido que escuchar a menudo que todas esas macro-infraestructuras son fundamentales para el futuro de nuestro territorio, pero nunca, desde esas instancias ni se ha promovido ni se ha dejado promover un debate social sobre los impactos ambientales, sociales y económicos de dichas infraestructuras, menos aún en un contexto económicamente tan negativo como el actual.

Asimismo, cabe resaltar que ya se aprecia una tendencia social que cuestiona ese modelo de desarrollo y desde los movimientos sociales se ha destapado el inmenso agujero económico en que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

izenean batere errentagarritasunik gabe lan-baldintzen prekarietatea bultzatzen duten gutxi batzuen intereseko azpiegitura megalomanoak, eta argi geratu da herri-mugimenduok geure bidea egin eta herritarrak mobilizatzen jarraitu behar dugula, informazioa zabaldu, jendarte eredua aldatu eta egitasmo horiek geldiaraztearen aldeko lanean. Edozein eratan, bizi dugun krisialdi ekonomikoaren ondorioz ere, azpiegituren inguruko eztabaida herrialde guztietan berriro piztu denean, gure ustez funtsezkoa da egungo garapen-eredua aldatze aldera orain arte inoiz burutu ez den gizarte eztabaida hori bultzatzea.

se han convertido las infraestructuras en los últimos años, descubriéndose ahora el derroche de recursos y los “pelotazos” que se han dado con la ejecución de obras públicas particularmente no rentables y cuya justificación oficial se ha construido recurriendo sistemáticamente a un retórico “interés general” y a hipótesis falsas de rentabilidad socioeconómica y de creación de empleo. Por ello, queda claro que los movimientos sociales debemos seguir nuestro camino y seguir movilizando a la gente, informando, cambiando el modelo social y trabajando por parar esas grandes infraestructuras. De todas maneras, a raíz de la profunda crisis económica, se ha reabierto el debate sobre las grandes infraestructuras en todos los territorios, por lo que nos parece imprescindible que con el objetivo de cambiar el actual modelo de desarrollo, impulsemos el debate social que hasta ahora nunca se ha dado.

Horregatik guztiagatik AHTren aurkako taldearen izenean, Udaleko Udalbatzari, honako erabaki hauek har ditzan eskatzen diogu:

Por todo ello, en nombre de AHTren aurkako taldea, solicitamos al Pleno del Ayuntamiento, tome las siguientes resoluciones:

1. Udal honek, otsailaren 4an, larunbata, hainbat herri-mugimendu eta taldek deituta, arratsaldeko 17:30ean, Donostiako Boulevardetik “GIPUZKOA DESBERDIN BATEN ALDE, EREDUA ALDATU: AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDITU!” lemapean aterako den manifestazioarekin bat egiten du eta herritarrei parte hartzeko deia egiten die.

1. Este Ayuntamiento apoya y hace un llamamiento a las personas del municipio para que participen en la manifestación que movimientos sociales han convocado el día 4 de febrero, sábado, a las 17:30 desde el Boulevard de Donostia bajo el lema “POR UN CAMBIO DEL MODELO SOCIAL PARA UNA GIPUZKOA DIFERENTE: ¡PARALIZACIÓN DE LAS GRANDES INFRAESTRUCTURAS!”.

2. Udal honek bat egiten du ingurumenean, gizartean eta ekonomian sekulako eraginak dituzten azpiegitura-lan handiak geldiaraztea eta horien inguruan gizarte-eztabaida bultzatzea ezinbestekoa denaren ideiarekin eta, beraz, konpromisoa hartzen du bere esku dagoen guztia egiteko herritarrak informatu, eztabaida-guneak

2. Este Ayuntamiento declara fundamental paralizar las grandes obras de infraestructuras con gran impacto ambiental, social y económico y promover un debate social sobre las mismas. Por lo tanto, este Ayuntamiento se compromete a hacer todo lo posible por informar, abrir espacios de debate y dar la palabra a la ciudadanía. La

ireki eta hitza emateko. Azken urteotan gailendu den politika egiteko moduak herritarrak ikusle huts bihurtzera kondenatu ditu eta herritarrak beren etorkizunaren jabe izan daitezen, erakundeek gardentasuna, zuzentasuna eta parte-hartzea izan behar dute oinarri. Gainera, Udal honek bere buruarekiko ez ezik, azpiegitura-lan handien arloan eskumenak dituzten gainerako erakundeei azpiegitura horien inguruko gogoeta egin eta gizarte-eztabaidari bide emateko eskaera egiteko konpromisoa hartzen du.

Eskaera honen sinatzaileek Udalbatzari akordioa puntuz puntu bozkatzeko aukera ematen diote, hala nahi izanez gero."

Ondoren, mintzatu dira:

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du mozioa Errenteriako Ezkerrak eta Bilduk elkarrekin aurkeztu badute ere, izatez, AHT taldearena dela. Orduan, beraien ordezkaria jendartean dagoenez, Alkateari eskatzen dio berari hitza emateko.

* Jendartean zegoen AHT ordezkariak zera esan du: "Bera AHTren bozeramaile gisa datorrela. Eta adierazi nahi du otsailaren 4an, larunbata, egin asmo duten manifestaziorako babesa eskatu nahi dio Udalbatzari. Euren lema: "GIPUZKOA DESBERDIN BATEN ALDE, EREDUA ALDATU: AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDITU!". Bigarren puntuan gizarte-eztabaida sortzea nahi dute, konpromiso hori Udal honi ere zabaltzen dietelarik. Azpiegitura hauek gelditzea, obrak gelditzea eta, batez ere, gaur eguneko egoera sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta. Eta, batez ere, Ama Lurrari eragingo dion mina sakona salatu nahi dute. Era berean, adierazi nahi dute plataformaren barruan 23 talde daudela politiko, ekologista eta sindikalen artean".

política imperante en estos últimos años ha condenado a la ciudadanía a jugar el papel de meros espectadores, por lo que las instituciones deben apoyarse hoy más que nunca en la transparencia, rectitud y participación para devolver a la ciudadanía la posibilidad de ser dueña de su futuro. Además, este Ayuntamiento, se compromete a instar a las instituciones competentes de las mencionadas grandes infraestructuras a que reflexionen y abran el debate social sobre ellas.

Los firmantes de la petición facultan a la corporación para votar por puntos el acuerdo si esto se solicita."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera el Sr. Diez (O.E. BILDU) manifestando que aunque la moción la hayan presentado Errenteriako Ezkerra y Bildu, en sí, la misma es del grupo AHT. Y como un representante del mismo está presente, solicita del Alcalde que le dé la palabra.

* Interviene en euskera una persona del público en representación de AHT manifestando que viene como portávoz de AHT. Así, desea manifestar que el próximo sábado, 4 de febrero, van a realizar una manifestación y por ello solicita a la Corporación su apoyo. Su lema será la siguiente: "POR UN CAMBIO DEL MODELO SOCIAL PARA UNA GIPUZKOA DIFERENTE: ¡PARALIZACIÓN DE LAS GRANDES INFRAESTRUCTURAS!". Como segundo punto desean crear un debate social, compromiso que hacen extensivo a esta Corporación. Desean paralizar estas infraestructuras, paralizar las obras, sobre todo teniendo en cuenta la situación social y económica. Además desean denunciar el profundo dolor que le están causando a la Madre Tierra.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Asimismo, quiere señalar que el movimiento lo forman 23 grupos, existiendo en el mismo, grupos políticos, ecologistas y sindicales.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du azpiegitura horien beharraz bat etor daitezkeen baino harago joanez, burutzen ari den politikaren inguruko hausnarketa egitera gelditzeko unea dela, hain zuzen horrek nora daramatzan ikusteko eta azpiegitura horiek egiten diren lekuetan zer nolako erabilera ematen zaien ikusteko. Hori horrela, mozioaren bigarren puntuan gelditzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta azkenean subiranoa den herriari hitza emateko eskaera egiten diete. Eurek horregatik bozkatuko dute mozioaren alde, beste gauza zenbaitetan ikuspuntu ezberdinxeagoa baldin badute ere.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que más allá de que compartan o no la necesidad de algunas de esas infraestructuras, piensa que es el momento de pararse a reflexionar sobre la política que se ha llevado adelante, a donde les conduce la misma y qué uso se está dando de esas infraestructuras en otros lugares donde se han desarrollado. En ese sentido piensa que el segundo punto de la moción les insta precisamente a pararse, reflexionar, abrir espacios de debate y dar la palabra en última instancia a quien es soberana de todas las cuestiones, que es la ciudadanía. Por esto va a votar a favor de la moción, más allá de que en algunas cuestiones podría tener un punto de vista algo distinto a lo que en la misma se dice.

* Bastos andreak (PP) esan du bere Taldeak obra handiak beharrezkoak jotzen dituela. Eta ondorioz, ez daude mozioaren alde, eta aurka bozkatuko dute.

* Interviene la Sra. Bastos (PP) manifestando que en su Grupo piensan que las grandes obras son necesarias, no están a favor de la moción y su voto será en contra.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du zorigaitzez ordura arte eman den kontsentsu eta armonia-giroa puskatzen dela, izan ere, eurek mozioaren aurka bozkatuko dute. Berak aitortzen du Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak azpiegitura handien aldeko apustua egin dutela, baina, bere aburuz, helburu garbiarekin egina da, hau da, herritarren bizi-baldintzak hobetzeko eta Euskadiko, eta zehazkiago, Gipuzkoako ekonomia hobetzeko eta, hobeto ekoiztu eta lehiatzeko xedearekin. Horiek lehentasunezko helburu argi horrekin, eta denen zerbitzurako pentsatu eta egin dituzte, eta oraindik egiten jarraitzen dute hainbat

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que lamentablemente parece que aquí se rompe el clima de consenso y armonía en el sentido de la votación, porque van a votar en contra de la moción que se presenta. Hay que reconocer la evidencia de que la Diputación Foral y el Gobierno Vasco han apostado por el desarrollo de grandes infraestructuras, pero a su entender se ha hecho con un objetivo claro, que ha sido el de mejorar las condiciones de vida y también para que la economía de Euskadi y concretamente la de Gipuzkoa, pueda ser más productiva y más competitiva. Con este objetivo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

azpiegitura, esaterako, errepide ziurragoak eta modernoagoak, ospitaleak, zaborrak tratatzeko azpiegiturak, etab. Uste du, halaber, denek baliatzen dituztela eta une jakin batean denek eskertzen dituztela, nahiz eta batzuek hori ozen antzera adierazi eta beste batzuek isilpean gorde. Bere aburuz, horrek guztiak lagundu egiten du ekonomia arloan punta-puntan ibiltzeko eta gizartea konpetitiboen artean ibili ahal izateko. Euren aburuz, aurrekoa ez da lortzen denari ezetz esanez, eta beraz, behin helburua ezarritakoan —alegia, lehen aitatutakoa— bere iritziz, ahalegin guztiak beharrezko urrats horiek ematera bideratu behar dituzte, baita azpiegitura egokiak egiteko ere, nahiz eta horiek diru-kopuru handiak suposatu, beti ere, jakina, ingurumenean izan dezakeen eragina murrizteko xedea aintzat hartuta. Euren aburuz Euskadik aurrera egiten jarraitu behar du, eta hori, bere ikuspuntutik eta errespetu guztiarekin esanda, ez da etorriko azpiegiturak egiteari utzita, nahiz eta horiek batzuentzat beste batzuentzat baino egokiagoak izan. Beraz, adierazitako arrazoiengatik, eurek mozioaren aurka bozkatuko dute.

claro como prioridad y al servicio de todos, se han pensado, se han desarrollado y algunas se siguen desarrollando, diferentes infraestructuras, carreteras más seguras y más modernas, hospitales, infraestructuras para el tratamiento de basuras, etc. Cree que son utilizadas por todos y todas, y que todos y todas agradecen en un momento determinado, aunque haya voces que lo hagan en tono más alto y otras en un susurro. Piensa que todo ello ayuda a mantener a este pueblo entre los más adelantados y a esta economía y esta sociedad entre las más competitivas. Entienden que esto no se hace de la mano del no, y fijado el objetivo, que es el que ha dicho con anterioridad, desde su punto de vista todos los esfuerzos hay que dirigirlos a dar esos pasos necesarios, también en la construcción de infraestructuras adecuadas aunque supongan grandes cantidades de dinero, teniendo siempre en cuenta también la minoración del impacto medio ambiental. Entienden que Euskadi tiene que seguir avanzando y eso, desde su punto de vista y dicho con todos los respetos, no viene de la mano de la paralización de la creación de infraestructuras, que pueden ser para unos más oportunas y para otros menos. Por los motivos que ha manifestado, van a votar en contra de la moción que se plantea.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berari deigarria egiten zaiola, besteak beste, mozioa ondoko hizki larriz nabarmendurik etortzea: “AZPIEGITURA HANDIAK GELDITU”. Badirudi soilik azpiegitura handia izateagatik, berez, txarrak direla, eta hori, bere irudiko, arinkeria izugarria da. Argi dago —dio — azpiegitura handi orok eztabaida eragiten duela, hori argi dago eta gainera naturala da. Alabaina,

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que una cuestión que le llama la atención entre otras, es que en la moción venga resaltado y en mayúsculas “PARALIZACIÓN DE LAS GRANDES INFRAESTRUCUTRAS”, parece dar a entender que por el mero hecho de que algo sea una gran infraestructura, per se es malo, y cree que eso es caer en un simplismo exagerado. Claro está que

ez dute ahaztu behar han aitatzen ari diren zenbait urteak eta urteak daramatzatela eztabaidatzen. Horrekin esan nahi du ez dela presaka hartutako erabakia; ez dela ezer egin ezkutuan edo lotsa sentitzeko moduan, etab. Besterik da —dio— azpiegitura onak egongo direla, hala nola, interesgarriak, eragingabekoak, ez-beharrezkoak, etab., azken finean, denetarik egongo dela uste duelako. Bestalde, mozio honen idazkerari jario zaion irizpidearen arabera, beldur da, irizpide hori edo bizitza-filosofia hori izan bazen, esaterako, duela mende bat, gaur egun ez zutela izango ezta trenbiderik ere, ziur dagoelako orduan ere izango litzatekeela aurrera egitea eragotziko zukeen pentsaeraren bat. Hori hala da, zeren eta adierazpen zenbaitek trenbidea zelai berdeetatik pasako zenez, behiak izutu eta esnerik ez zutela emango esaten zuenik bai baitzen. Zorionez, garapena ulertu eta garatzeko modu ezberdinak daudela ikusten dute, hala, bere aburuz, ez daiteke onar azpiegitura guztiak, berez, txarrak direla, azpiegitura guztiak, berez, zoragarria ez den bezala. Izan ere,

ez baita gauza bera untxiak baino jaten ez duten zelai batean aireportu bat egitea, lehiakorrak izateko autopista bat egitea gurea bezalako orografia batean nahitaezkoa baldin bada. Berak pertsonalki ez die uko egiten garapenak ekartzen dituen abantaila-teknologiakoei, izan ere, zenbait, igual, ez dira beharrezkoak izango, baina, berez, ez dute zertan txarrak izan beharrik. Aldiz, jakina, azpiegitura guztiak ez dakit zein botere faktiko, ekonomiko, etab. onuratzako ideiarekin egiten direla uste bada, hori pentsatzeko era bat da, baina berak ez du uste modu horretan jeneralizatu daitekeenik, ezta eztabaidarik ez dela eman ere. Gizarte honetan zerbaitek galarazten badie, hori gaiak urteak eta urteak atzeratzea da. Era berean,

toda gran infraestructura provoca debate social, es evidente y además natural. Pero no hay que olvidar que algunas de las que se mencionan aquí llevan años y años y años de debate. Con esto quiere decir que no hay una decisión precipitada, que no hay nada que se haga de una manera escondida y vergonzante, etc., otra cosa es que habrá infraestructuras buenas, interesantes, anodinas, innecesarias, en definitiva habrá de todo. Con el criterio que rezuma la redacción de esta moción, mucho se teme que si esta imagen o filosofía de la vida hubiera existido por ejemplo hace un siglo, no se habría hecho ni el ferrocarril que hoy dia se conoce, porque seguro que entonces también habría algún impedimento mental para que el mismo se llevara adelante. Tanto es asi, que había manifestaciones que decían que como el ferrocarril pasaba por los campos verdes donde pastaban las vacas, éstas se iban a asustar y dejarían de dar leche. Por suerte pueden ver que hay maneras de entender y ejecutar el progreso, pero cree que no se puede admitir que toda infraestructura, que todo progreso es malo per se, como no

toda infraestructura es buena y maravillosa per se. No es lo mismo hacer un aeropuerto donde solo pastan los conejos, que hacer una autopista que en este entorno geográfico, es su razón de existir y de ser competitivos. Personalmente no reniega de las ventajas tecnológicas que el progreso aporta, habrá algunas que sean innecesarias, pero per se no son todas malas. Pero claro, si se parte de que todas estas infraestructuras solo se hacen para beneficiar a no sabe qué poderes fácticos, económicos, etc., será una forma de pensar, pero personalmente piensa que no se puede generalizar de esa manera, ni tampoco alegar que no ha habido debate. Si algo les pierde en esta sociedad son los años y años que se van dando



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

bere ikuspuntu politikotik erabat okerra iruditzen zaio legegintzaldi bakoitzean gauzak aldatzea, aurreko azpiegitura guztiak zalantzan ipintzen direla dirudielako, modu horretan jardunez galduta daudela uste duelarik.

largas a los temas. También hay otra cuestión, desde el punto de vista político le parece totalmente erroneo y equivocado que en cada mandato electoral que se pone en marcha, parece que se pongan en cuestión todas las infraestructuras anteriores, y de esa manera, piensa que están perdidos.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du euren ustez gaur egun planteatuta dagoen lurralde-antolaketak ez die erantzuten herritarren beharrei eta interesei, eta pentsatzen dute proiektu eta azpiegitura nagusietan, gutxienez gatazka soziala sortu dezakeenetan, horiek martxan jarri baino lehen eztabaida sozial zabalari bidea eman behar zaiola, are gehiago une honetan, baliabide ekonomikoak urriak direnean, esan du. Gero gazteleraz jarraitu du, adieraziz, eurek oso garbi dutela azpiegitura handiei buruzko gogoeta bat egitea nahi dutela. Haren esanetan eztabaidari ez zaio beldurrik eduki behar, horrek probintzia eta ekonomia gelditzen duela badirudi ere. Bere iritziz eztabaidak ez du ezer gelditzen, aitzitik gauzak planteatu eta zer nolako garapen-eredua nahi den ikusarazten du. Harritzekoa da alderdi Sozialistako ordezkariak esatea hondakinen aferan Udalean herritarrekin eztabaidatu behar dela, hondakin solidoak birziklatzeko ekonomiaren inguruko datu objektiboak aportatu behar direla, eta azpiegitura handiez hitz egiten dutenean, ekonomia asuntoak ez aintzat hartzea. Ikusten denez, hori aparteko konta da, azpiegituren aferan herritarrek ez dute esku hartu behar tontoak diruditelako; gauza txikitan bai, baina handitan, esaterako, abiadura handiko trenean, portua, erraustegia, edozein errepide, etab.etan ez zaio inori galdetu behar, soilik zuei (PSE) iruditzen zaizkizuenak galdetu behar dira, esan die. Bere irudiko hor kontraesana ematen da, zeren eta lehenik laugarren puntuan

* Interviene en euskera el Sr. Díez (O.E. BILDU) manifestando que a su juicio tal y como está planteado la organización provincial no responde a las necesidades e intereses de la ciudadanía, y piensan que en los proyectos y grandes infraestructuras, al menos en aquellos que pueden generar un conflicto social, antes de poner en marcha las mismas se tiene que dar un amplio debate social, más aún si cabe, cuando los recursos económicos escasean. Continua en castellano señalando que tienen clarísimo que quieren que se dé una reflexión sobre las grandes infraestructuras. No tiene que haber miedo al debate, parece que éste está paralizando la provincia y la economía. El debate no paraliza nada, lo que tiene que hacer es plantear las cosas y ver el modelo de desarrollo que se quiere. Es curioso ver al representante del Partido Socialista hablar de debate en el Ayuntamiento con la ciudadanía en el tema de los residuos, decir que hay que aportar datos objetivos de tipo económico para el reciclado de residuos sólidos y sin embargo, en el tema de las grandes infraestructuras no hay que poner por delante los temas económicos. Es un tema aparte, en las grandes infraestructuras no deben participar los ciudadanos porque parece que son tontos, en las pequeñas cositas si puede haber debate pero en las grandes, tren de alta velocidad, super puerto, incineradora, cualquier carretera, no hay que consultar nada, solamente hay que consultar

eztabaida

planteatzen da, eta gero, aukera kendu egiten da, ez da eztabaidatzen, gaineratu du. Une honetan —dio— Pasaiako portuaren inguruko alegazio-prozesuan sartuta daude; bi mila hirurehun lagunek alegazioak egin dituzte, hamar mila sinadurekin berretsiak, eta gainera, laurehun eta berrogeita hamar alegazio kolektibo daude. Euren aburuz gai horri garrantzia eman behar zaio eta eztabaida gizartera eraman behar da. Bilduren ustez azpiegitura horiek eztabaidatu behar dira, gogoeta egin eta kontuan hartu behar dute dena ez dela errepideak egin eta eraikitzea. Lehen esan da garai batean egiten ziren azpiegitura handiekin behiak izutuko zirela esaten zela, orain berak dio une honetan igual ez dela behientzat lekurik ere izango.

aquellos temas que a ustedes (PSE) les parece. Cree que se está dando una contradicción, en

el punto cuarto se plantea debate y en este punto se elimina el debate, no existe debate. En este momento están inmersos en un proceso de alegaciones al puerto de Pasajes, hay alegaciones planteadas por dos mil trescientas personas que están refrendadas por diez mil firmas y además hay cuatrocientas cincuenta alegaciones colectivas. Piensan que es un tema al que hay que darle la importancia que tiene y llevar el debate a la sociedad. Desde Bildu piensan que estas infraestructuras hay que debatirlas, hay que reflexionar y tienen que tener en cuenta que no todo es hacer carreteras y construir y construir. Antes se ha dicho que con las grandes infraestructuras que se hacían en una época las vacas se iban a asustar y él dice que en este momento igual no va a haber sitio ni para las vacas.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du ez esateko hark esan ez duen gauzarik, behintzat adierazi beharrekoa oso gaizki esan ez badu. Berak ez du inoiz aitatu ez dela eztabaidatu behar, berak esan du une bat iristen dela gauzak ez litezkeela geratuta utzi eztabaida antzua gertatzen delako. Adibidez, hondakinen kontuarekin zortzi urte daramate eztabaidatzen. Orain erakundeetan sartzen da Bildu —haserretu gabe esaten du— eta badirudi gaia deskubritu eta berriro hasi eta eztabaidatu behar dela. Berak sekula ez du ez eztabaidatzea desio izan, ezta gutxiago ere. Aldiz, uste du noizbait bukatu eta ekintzetara pasa behar dela. Denen adostasuna, jakina, ez da emango, hori ezer gutxitan eman daitekeelako, gaur bozkatu duten esangura gutxiko zuzenketa batean ez bada.

* El Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que no ponga en su boca lo que no ha dicho o quizás es que se ha expresado muy mal. No ha dicho en ningún momento que no haya debate, lo que ha dicho es que llega un momento en que no se puede seguir paralizado porque el debate deviene esteril. Por ejemplo, en el tema de los residuos se lleva debatiendo ocho años, ahora aparece Bildu en las instituciones, y lo dice sin acritud, pero parece que descubre este asunto y ahora se vuelve a empezar y se vuelve a debatir. Nunca ha pretendido ni por asomo el que no se debata, lo que dice es que tiene que llegar un momento en que se acabe el debate y se pase a la acción. Unanimidad por supuesto no va a haber, porque no la hay practicamente en nada, salvo alguna enmienda que hoy se ha votado pero

Bada abiadura handiko trena, portua edo, unean-unean egiten dena ere, begi onez ikusten ez duenik. Baina ez dela eztabaidarik eman, galdetu du. Bere iritziz, Diez jaunak (O.E. BILDU) aitatu dituen alegazioek erakusten dute eztabaidatu direla, eta gainera ez orain aurkeztu dituztenean, esaterako, abiadura handiko trenaz noiztik ari dira hizketan, galdetu du. Hor, bere garaian Leitzarango autopistarekin gertatu zen bezala, ez zen akordiorik ematen, baina gehiengoak egin behar zela erabaki zuten, nahiz eta horren inguruan oso adierazpen arinak egin ziren, hala nola “OTANek Euskal Herria inbaditzeko bidea izango zela”. Hau idatzita dago, ez da nik asmaturikoa, gaineratu du. Berriro dio berak ez duela, inolaz ere, esaten ez dela eztabaidatu behar, baina uste du zortzi urte nahikoa dela.

es anecdótico. Hay quien no ve el tren de alta velocidad, no ve el super puerto o no ve lo que se trate en cada momento, pero ¿no ha habido debate?. Las mismas alegaciones a las que hace mención el Sr. Díez (O.E. BILDU) demuestran que ha habido debate, pero no ha sido ahora solamente cuando se han presentado, o en cuanto al tren de alta velocidad, ¿desde cuando no se lleva hablando?. Como se habló en su día de la autopista de Leizarán, donde no había acuerdo pero las mayorías acordaron que había que hacerlo, aunque había manifestaciones tan peregrinas como la que decía que eso iba a ser una via de invasión de la OTAN al pueblo vasco, y esto está escrito, no se lo está inventado. Repite que nada más lejos de su intención que el decir que no haya debate, pero piensa que ocho años de debate ya son suficientes.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aurkako 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) eta aldeko 9 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos en contra (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP) y 9 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Atzera botatzea** Errenteriako Ezkerrak eta O.E. BILDUk Gipuzkoako azpiegituretako obra handiak geratzeari buruz aurkezturiko mozioa.

**Desestimar** la Moción presentada por Errenteriako Ezkerra y O.E. BILDU por la paralización de las grandes obras de infraestructuras en Gipuzkoa.

Jarraian.

Seguidamente.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

* Jendartean zegoen pertsona batek esan du Merino jaunarekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) bat datorrela, alegia, gauzak ebatzi behar direla, eta berari gustatuko litzaioke portu handiaren afera behingoz ebaztea eta armairuan uztea. Bestalde, Espainia, zorionez, Europan abiadura handikoak kilometro gehien duen lurraldea da, baina aldi berean lehenengoa da ere krisia ekonomikoan, lan-gabezian eta kontu horietan. Badirudi —dio— abiadura handikoan kilometro gehien edukitzeak ez duela esan nahi ezer hobetu denik, eta hori, bere iritziz, nahiko datu objektiboa da. Era berean, uste du, kontuan hartu behar dela abiadura handiko trenbidea egiten hil diren langileak, gehien-gehienak portugesak, eta horrek erakusten du kontratu-prekarietatea eta orain dagoen eredu sozial eta ekonomikoa. Berak ez du ulertzen nola euren burua demokratatzat duten alderdi politikoek ez dituzten herriak gai hauei buruz iritzia emateko bideak irekitzen; izan ere, bere aburuz, ez baitira hitzontzikeriak, asko eragiten duten gauzak baizik. Eta, berriro dio, ados dagoela Sozialisten eledunarekin, hots, kontua lehenbailehen ebatzita hobeto, orduan ahaztuta geratuko direlako abiadura handiko trena, portu handia, erraustegia eta behar ez diren gauza horiek guztiak, edo gutxienez, herritar askok nahi ez dituztenak.

* Interviene una persona del público manifestando que está de acuerdo con el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en que hay que zanjar los temas, a ver si se puede zanjar de una vez el tema y dejar en el armario el super puerto. Por otra parte, España tiene la suerte de ser el país número uno de Europa en kilómetros de alta velocidad, en cambio, también es el número uno en crisis económica, en paro y en ese tipo de cuestiones. Parece que el tener más kilómetros de alta velocidad no quiere decir que haya mejorado nada, este es un dato bastante objetivo. También hay que tener en cuenta los obreros que han muerto en la construcción del tren de alta velocidad, en su mayoría portugueses, lo que indica la precariedad en los contratos que lo único que hace es reflejar un poco el modelo social y económico que actualmente existe. No entiende como partidos políticos que se consideran democráticos no pueden abrir cauces para que el pueblo pueda opinar y expresarse sobre estos temas, que no son tonterías sino asuntos que le afectan mucho. Repite que está de acuerdo con el portavoz Socialista, cuanto antes se zanje el tema mejor y se queden en el olvido el tratamiento del tren de alta velocidad, superpuerto, incineradora y todas esas cosas que no se necesitan o que al menos muchos ciudadanos no quieren.

**10. BILDU eta PSE-EEk Kutxabankeko ordezkaritzari buruz aurkezturiko mozioa, Errenteriako udaleko Udalbatzak onartzeko.**

**10.- Moción formulada por BILDU y PSE-EE para su aprobación en el Pleno municipal del Ayuntamiento de Errenteria relativa a la representación en Kuxabank.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du.

Leída por el Secretario la siguiente moción



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Honek hitzez hitz hauxe dio:

“Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluak hartutako erabakien ostean, non Kutxabank erakunde berriaren ordezkaritza erabaki baitzen eta Gipuzkoako Kutxari zegokion ordezkaritzan murrizketa bat eman baitzen, eta ondorioz, baita Gipuzkoako herritar guztiarenean ere, Udal talde honek MOZIO hau aurkezten du eztabaidatu eta onartzeko.

1. Errenteriako Udalak Kutxabank sostengatzen du —Kutxa, BBK eta Caja Vital euskal kutxak integratuta sorturiko erakundea— integrazioa emateari buruz adosturiko irizpideak (funtzio sozialari buruzkoak) bere horretan dirauten heinean, izan ere erakunde hori ekonomia bultzatzeko eta herrialde honen interes ekonomiko eta herritarren ongizatea defendatzeko baliabide garrantzitsua jotzen duelako.

2. Errenteriako Udalak errefusatzen du Kutxabankeko Administrazio Kontseiluaren egitura eta osaketa, bi alderdi politikoen alderdikeriazko interesetan oinarritua delako, eta gisa horretan, Administrazio Kontseilu hori bi alderdi horien kontrol esklusibo bakarraren baitan egongo delako, eta baztertu delako gizartearen eta euskal erakundeen ordezkaritza pluralaren parte hartzea. Ildo horri berari jarraiki, era berean, Administrazio Kontseilu horren aurkako jarrera adierazten du, besteak beste, izendapena bat eginiko finantza-erakunde bakoitzak duen benetako ordezkaritza ez delako errespetatu eta, halaber, Euskal Herriko

que literalmente dice:

“Tras los acuerdos del Consejo de Administración de Gipuzkoako Kutxa en los que se decidió la nueva representación para la nueva entidad Kutxabank y que además supusieron una reducción de la representación correspondiente a Gipuzkoako Kutxa y por tanto de toda la ciudadanía de Gipuzkoa, este Grupo Municipal presenta la siguiente MOCIÓN para su debate y aprobación:

1. El Ayuntamiento de Errenteria presta su apoyo a Kutxabank, -entidad nacida de la integración de las cajas vascas Kutxa, BBK y Caja Vital – en tanto en cuanto mantenga los criterios consensuados sobre los que fue acordada la integración, manteniendo la función social, entendiendo así dicha entidad como un importante instrumento de apoyo a la economía, y de defensa de los intereses económicos de este país y del bienestar de su ciudadanía.

2. El Ayuntamiento de Errenteria manifiesta su rechazo a la configuración y composición del Consejo de Administración de Kutxabank, puesto que se han basado en criterios de interés partidista de dos fuerzas políticas, propiciándose la configuración de un Consejo de Administración sometido al control exclusivo de esas dos fuerzas, excluyendo la participación de una representación plural de la sociedad y las instituciones vascas. En ese sentido, declaran asimismo la posición contraria al antedicho Consejo de Administración, por haber procedido a su nombramiento, sin respetar el peso real de cada una de las entidades

erakunde eta gizarte ordezkaritza plurala ez delako jasotzen.

financieras fusionadas, y también sin reflejar la realidad plural de la representación institucional y social del País Vasco.

3. Errenteriako Udalak Kutxabankeko egungo kudeatzaileei exijitzen die errespeta dezaten Kutxa erakunde sortzailerako adosturiko ordezkaritza, hain zuzen integraturiko hiru Kutxen Batzarrek onarturikoa. Eta ondorioz, Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona-kopuru murrizketa berrikusi eta indarrik gabe utz dezaten Kutxa erakunde sortzailearen interesak eta Gipuzkoako herritarrenak ez kaltetzeko.

3. El Ayuntamiento de Errenteria exige que los actuales gestores de Kutxabank respeten la representación acordada para la entidad fundadora Kutxa, ello según lo acordado en el Contrato de Integración que fue aprobado por las respectivas Asambleas de las tres Cajas integradas. Y en su consecuencia, reconsideren y anulen la disminución en el número de personas integrantes del Consejo de Administración, a fin de no perjudicar ni los intereses de la entidad fundadora Kutxa, ni tampoco los de los y las ciudadanas de Gipuzkoa.

4. Errenteriako Udalak beharrezkoa jotzen du kutxak arautuko dituen euskal legedi bat, erakundeetako ordezkari guztiekin negoziatu eta adostu beharko dena, bereziki Kutxen erakunde-sortzaileen ordezkariekin. Era berean uste du herriko erakunde-pluraltasuna eta sozialaren inguruko errespetuzko irizpideak errespetatu behar direla, eta gobernu oneko arauak aintzat hartuta, zuzendaritza-organoa osatzen duten pertsonek profesionaltasun eta bikaintasun irizpideak errespetatu behar dituztela."

4. El Ayuntamiento de Errenteria considera necesaria una legislación vasca de regulación de las cajas que deberá ser negociado y consensuado con todos los representantes elegidos en las instituciones, de forma especial con aquellos que representan a las entidades fundadoras de las Cajas, así como ser respetuosa con los criterios de respeto a la pluralidad institucional y social del país y ateniéndose a las normas de la buena Gobernanza, con respeto a los criterios de profesionalidad y excelencia en la gestión para las personas que integren los órganos de dirección."

EAJ/PNV taldeak ondoko mozio alternatiboa aurkeztu du:

El Grupo EAJ/PNV presenta la siguiente moción alternativa:

"Euskadiko hiru Kutxek Kutxa Banken

"Las tres Kutxas de Euskadi decidieron el pasado



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Administrazio Kontseilua 15 kiderekin osatzea erabaki zuten aurreko abenduaren 30ean. Onartutako arauak betez, Kutxa Bank abiaraztea zen egin beharrekoa, haren zuzendaritza eta erabakiak hartu beharko zituen kontseilua ahalik eta adostasunik zabalenaz izendatzea izan zen xedea. Eta oinarria sendo kontserbatzeko asmoaz hastea, alegia, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko Bankuen artean, kaudimen eta efizientzia mailarik gorenetakoa mantentzea.

30 de diciembre constituir el Consejo de Administración de Kutxa Bank con 15 miembros. De acuerdo con las normas aprobadas, había que proceder a poner en marcha Kutxa Bank, con el objetivo de designar mediante el mayor consenso posible su equipo rector y el consejo que deberá tomar las decisiones. El fin era iniciar la andadura conservando con fortaleza su principio básico, es decir, mantener uno de los niveles más elevados de solvencia y eficiencia entre los Bancos de Euskal Herria y el Estado español.

Azken urte hauetan, finantza arloan aldaketa sakonak gertatu dira eta gertatzen ari dira. Merkatu maioristetan dirua lortzeko gero eta arazo gehiago izaten ari da. Kutxek, kutxa izateagatik, errekurtso propioak handitzeko arazoak dituzte. Negozio arruntean margenak gero eta txikiagoak dira eta beraz, zenbat eta margen eskasagoa orduan eta errentagarritasun urriagoa. Aldiz, gero eta zorrotzagoak dira kutxek bete beharreko arauak, eta bai Europar Batasunetik datozen irizpideak bai Espainiako Bankuarenak norabide bera ezartzen diete kutxei: beren finantza-jarduera bankuen ereduetan oinarritu arazten zaie.

En estos últimos años se han producido y se están produciendo profundos cambios en el sector financiero. Están aumentando los problemas para conseguir liquidez en el mercado mayorista. Las Kutxas, por ser cajas de ahorro, se encuentran con obstáculos para incrementar los recursos propios. Los márgenes del negocio recurrente son cada vez menores y, por tanto, cuanto más escaso es el margen menor es el rendimiento. Al mismo tiempo, las Kutxas han de cumplir normas que son cada vez más exigentes y tanto los criterios que emanan de la Unión Europea como las que provienen del Banco de España marcan una misma dirección a las kutxas: se les exige que basen su actuación financiera siguiendo los modelos bancarios.

Bestetik, gure erakundeen aspaldiko borondatea izan da Kutxak batzea, Gizarte Lana bermatu eta indartzeko, eta gure garapen ekonomiko eta sozialarentzat lagungarriagoa izateko.

Por otro lado, la unificación de las Kutxas ha sido un anhelo buscado desde hace largo tiempo por nuestras instituciones, con el propósito de garantizar y potenciar la Obra Social y con el objeto de contribuir de mejor manera a nuestro desarrollo económico y social.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Horrela, nahiz eta beste bi aldietan huts egin zuen Kutxen bategiteak alderdi politikoek alderdikeriaz jokatu zutelako, Kutxen batzarretako taldeen gehiengo zabal eta nabarmenaz atera zen aurrera bategitea aurreko 2012ko Irailean.

De este modo, a pesar de que en dos ocasiones resultó fallido el intento de fusión de las Kutxas debido al comportamiento partidista de diferentes fuerzas políticas, en septiembre de 2011 salió adelante la fusión con una amplia y significativa mayoría de los grupos que conforman las Asambleas de las Kutxas.

Erabakitakoa betez, 2012ko urtarrilaren 1ean martxan jarri beharra zegoen Kutxa Bank bere Administrazio Kontseilua izendatuz eta izendapena, Kutxa Banken gehiengo zabal horrek erabakitako arauen arabera egin zen. Hala eta guztiz ere, Kutxa Bankek etorkizun laburrean hartu behar dituen erabakiak kontutan izanik eta erakunde berria indartzeko, komeni da Kutxak osatzen dituzten taldeen alderdikeriak alde batera utzi eta elkarrizketei berrekitea.

En cumplimiento de la resolución, Kutxa Bank debía echar a andar el 1 de enero de 2012 con su Consejo de Administración nombrado y tal designación se realizó de acuerdo con las normas decididas por la gran mayoría de Kutxa Bank. No obstante, habida cuenta de las decisiones que a corto plazo deberá adoptar Kutxa Bank y con el fin de fortalecer la nueva entidad, es adecuado reiniciar las conversaciones dejando de lado las actitudes partidistas de las fuerzas que conforman las Kutxas.

Guzti hori kontutan izanik, udalbatza honek hurrengo hau erabaki dezan proposatzen dugu:

Teniendo en consideración todo ello, proponemos que este pleno municipal adopte ka siguiente decisión:

1. Errenteria-ko udalak bat egiten du Kutxa Banken Administrazio Kontseiluaren izendapenarekin, Kutxa Bank egitasmoa gauzatzeko ezinbesteko tresna delarik.

1. El Ayuntamiento de Errenteria muestra su conformidad con la designación del Consejo de Administración de Kutxa Bank, al ser un instrumento imprescindible para la realización del proyecto de Kutxa Bank.

2. Errenteria-ko udalak Kutxa Banken Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen profesionaltasuna azpimarratu nahi du bereziki, profesionaltasun hori izango baita, orain arte bezala, Kutxa Banken kaudimen- eta

2. El Ayuntamiento de Errenteria. quiere subrayar de forma expresa la profesionalidad de las personas que conforman el Consejo de Administración de Kutxa Bank, ya que dicha profesionalidad será, como lo ha sido hasta ahora,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

errentagarritasun-maila bermatuko dituena.

la garantía para asegurar el nivel de solvencia y rentabilidad de Kutxa Bank.

3. Errenteria-ko udalak Kutxa Banken Administrazio Kontseilutik kanpo kokatu diren taldeei dei egiten die, alderdikeriak baztertu eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialerako berebiziko garrantzia duen egitasmora bil daitezen."

3. El Ayuntamiento de Errenteria llama a los grupos que se han situado fuera del Consejo de Administración de Kutxa Bank a que se incorporen a este proyecto de vital importancia para el progreso económico y social de Euskadi, abandonando las posturas partidistas."

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du puntu honetan eurek Udalean ordezkaritza duten gainontzeko lau Taldeak ez bezalako jarrera berezia eta diferentea dutela. Bere Taldea ez dator inolaz ere bat Kutxabank-en eman den bankarizazio-prozesuarekin kapital pribatuko Bankuen mesedetan euskal Kutxen pribatizazio-prozesu bat ikusten ari direlako eta, zoritxarrez, uste du, Kutxen esanahia eta izpiritua bera bidean geratu direla. Hortaz, mozioak planteatzen duen eztabaidan sartzeko asmorik ez dutenez, abstenituko direla, gaineratu du.

* Intervine el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que en el presente punto tiene una postura singular y distinta a los otros cuatro Grupos con representación municipal. Su Grupo no comparte en absoluto el proceso de bancarización que ha dado lugar a Kutxabank porque entienden que están acudiendo a un proceso de privatización de las Cajas vascas en beneficio de los Bancos de capital privado y piensa que, desgraciadamente, lo que significaban las Cajas y su espíritu se ha quedado por el camino. Por tanto, como no va a entrar a la discusión que plantea la moción, se va a abstener.

* Bastos andreak (PP) esan du EAJrekin batera mozio alternatibo bat aurkeztu dutela. Bere Taldeak jatorrizko mozioarekiko aurkako jarrera du, eta beraz, horren aurka bozkatuko dute.

* Interviene la Sra. Bastos (PP) manifestando que han presentado una moción alternativa junto con el PNV, la postura de su Grupo con respecto a la original es desfavorable y votarán en contra de la misma.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du denek badutela aurkeztu duten mozio alternatiboaren

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que todos conocen ya la moción

berri. Berak, bere aldetik, uste du Kutxabank-en eman den egoera deitoragarria dela, eta Kutxabank-ek hartu dituen erabaki guztietan profesionaltasuna izan badu arau ere, uste du azken kasu honetan, zorigaitzez, ez dela horrela izan. Horrela, fusioaren kontua publikoki asko eztabaidatu da, asko kosta den zerbait izan da, aurrez bitan saiatuarren —bitan huts egin zutelako —, ezinezkoa izan zen. Gero, azkenean, talde politiko zenbaitek jarrera aldatu zuelako, 2011ko irailean, Kutxaren batzarra osatzen duten Taldeen gehiengo zabala eta esanguratsuarekin bat egitea aurrera atera zen. Hori hasiera batean oso albiste ona zen, baina Kutxabank-eko Kontseilua osatu nahi izan dutenean, gainditu ez zezaketen data bat zeukaten eta hori urtarrilaren 2a zen. Haren esanetan, data hori ez zen kapritxoz ezarritako zerbait, Kutxabank-ek Europan zein Estatuan lehiakortasuna manten zezan exijituriko data baizik. Akordio batera ez iritsi izanak, hots, Kutxabank-eko Kontseiluko partaideen izendapena politizatzeak, zuzen-zuzenean ezer ez egitera eta gaia gelditzera eraman du. Bere iritziz, Kutxen bat egitearekin hori ez zen erdietsi nahi zen helburua, hain zuzen begien bistakoa delako Kutxabank oso egoera txarrean utziko zuela. Esan beharra dauka alderdi politiko guztiak azken unerarte negoziatzen aritu direla, besteak beste, Kontseilua denen artean osatzeko asmoa zegoelako. Horrela, bera ziur dago erantzukizuna batzuk besteei botako dietela, baina EAJk, kasu honetan, kontzientzia oso lasai dauka, hain zuzen ez duelako abusatu orain zegokion boterea eta balizko berritze batean toka zekiokeenaz. Euren aburuz erantzukizunez jardun dute Kutxabank-ek sareta jaso behar zuen garaian jaso duelako. Bestalde, eurek konfiantza dute desadostasun politiko hauei berandu baino lehen konponbidea aurkituko diotela, eta gisa

alternativa que han presentado. Personalmente cree que la situación que se ha producido en Kutxabank es lamentable y si en todo momento ha regido la profesionalidad a la hora de tomar decisiones, creen que en este último caso, lamentablemente, no ha sido asi. El tema de la fusión ha sido muy debatido publicamente, ha sido algo que ha costado muchísimo, se intentó anteriormente en dos ocasiones y no hubo manera, resultaron fallidas. Finalmente, con la modificación de las posturas de algunos Grupos Políticos, en septiembre de 2011 salió adelante la fusión con una amplia y significativa mayoría de los Grupos que conforman la asamblea de Kutxa. Lo que en principio era una muy buena noticia, cuando se ha ido a confeccionar el Consejo de Kutxabank había una fecha que era clave y que no se podía traspasar, que era el 2 de enero. No era una fecha puesta de manera caprichosa, sino que era una fecha exigida para mantener la competitividad de Kutxabank, tanto a nivel europeo como estatal. El no llegar a un acuerdo, es decir, el politizar la designación de los miembros del Consejo de Kutxabank, llevaba directamente a la inoperancia y a la paralización. Cree que ese no era el objetivo que se perseguia cuando se apostó por la fusión de las Cajas, cree que iba a dejar en muy mala situación a Kutxabank y en ese sentido hay que rendirse a la evidencia. Hay que decir que ha habido hasta el último momento negociaciones por parte de todos los Grupos Políticos, porque la intención y la voluntad era de que todos conformaran el Consejo, finalmente esto no ha sido posible. Seguro que unos se achacan a otros la responsabilidad, en esto el PNV tiene la conciencia muy clara y tranquila porque no ha abusado del poder que le corresponde ahora y que le pudiera corresponder en una eventual



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

horretan Kontseiluan denek ordezkaritza izango dutela. Horregatik, hain zuzen ere, eurek aurkezturiko mozioa alderdi Sozialistak eta Bilduk aurkezturikoaren aurkako norabidekoa da, eta jakina, euren mozioaren alde bozkatuko dutela, gaineratu du.

renovación. Entienden que han actuado con responsabilidad porque ha sido posible que Kutxabank levante la persiana en la fecha que tenía que hacerlo. Por otro lado, sí que muestran su confianza para que, más a corto que a largo plazo, se puedan solucionar estas discrepancias políticas y todos puedan estar representados en el Consejo. Por esto la moción alternativa que ellos presentan es justo en sentido contrario a la presentada por el Partido Socialista y Bildu, y por supuesto mantienen el voto favorable para su moción.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du eurek ez dutela bat egiten EAJ aurkezturiko mozioarekin, eta uste du Maite Peña andrearen hitzetan argi geratu dela Kutxabankeko Administrazio Kontseiluan ez dagoela behar bezala islatua, ezta Kutxa bera eta Gipuzkoako gizartea ere. Eurek, PSOErekin batera aurkeztu duten mozioaren bitartez, kezka adierazteaz gain, errefusatzen dute EAJ eta PPk Kutxabankeko Administrazio Kontseilua osatzeko egin dutena. Euren aburuz, EAJ eta PPk hitzartu dutena dela medio gizarte-errealitatearen aurkako itun bat egin dute, eta Administrazio Kontseilu horrek ez du gizarte honetako Gipuzkoako errealitate instituzional-politikoa isladatzen eta ordezkatzen. Eta, Peña andreak (EAJ/PNV) agian orain konpondu litekeela-edo esan duen arren, eurek pentsa dezakete bestelako interes batzuek daudela hori horrela egin izanaren atzean. Eurek argi dute Bilduk arduraz jokatu duela, hiru Kutxen arteko bat egite hori onetsi duela, eta saiatu da ekiditen Ferradas jaunak kezkaz adierazten zuen pribatizatzeko posibilitate hori, baita Gipuzkoak hor eduki beharreko lekua izan dezan. Orduan, zera galdetzen dute: ea EAJkoek babesten duten Gipuzkoako errealitatea ez islatzea eta euren

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que no están de acuerdo con la moción presentada por el PNV, y consideran que en las palabras de Maite Peña ha quedado claro que el Consejo de Administración de Kutxabank no está reflejada como se debería la sociedad gipuzkoana, ni tampoco la propia Kutxa. Sin embargo, con la moción que han presentado juntamente con el PSOE, además de expresar su preocupación, rechazan lo realizado por el PNV y PP para formar el Consejo de Administración de Kutxabank. A su juicio, lo convenido entre el PNV y PP es un acto contrario a la realidad social existente, y dicho Consejo de Administración no representa la realidad institucional-política de Gipuzkoa. Y, aunque la Sra. Peña (EAJ/PNV) haya dicho que tal vez ahora se podría buscar una solución, ellos podrían pensar que tras esa forma de actuar pudieran existir otro tipo de intereses. Tienen muy claro que han actuado responsablemente, ya que han aprobado la fusión entre las tres Cajas y han intentado evitar la preocupación expresada en torno a la privatización por el Sr. Ferradas, así como el lugar que debiera ocupar Gipuzkoa en el mismo. Por ello pregunta si los de PNV respaldan

ordezkaritza urriagoa izatea.

que la realidad de Gipuzkoa no esté representada como se debiera y que su representación sea inferior.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du negoziazioa denei irekia zegoela. Haren arabera, kontua ez da bi alderdi politikook gainontzekoak baztertu nahi izan dituztela, baizik eta bi horiek izan direla gauza ados jartzeko. EAJk hamar ordezkari onartuak ditu egun hemezortzi tokatzen zaizkionean, eta, bere ustez, hemezortzitik hamarrera jaistea dezente jaistea da. Hori horrela, ikusten denez Bildu ados zegoen EAJk hamar ordezkari izan zitzan, alabaina berak ez du asmorik desadostasunak nondik datozen baloratzeko eta non duten irrikaren muga ikusten hasteko. Aitzitik, esan behar dute Gipuzkoako indar-galeraren inguruan Kutxen ordezkaritza % 57, % 32 eta % 11n banatuta dagoela, hori delako Kutxa bakoitzak duen indarra; gizarte-ekintzarako dirua ere horrela banatzen dute, horrela jarrita dagoelako, eta, bere iritziz, Gipuzkoako interesak ziurtatuta daude. Eta, berriro dio, pena dela afera politizatu eta akordio bat erdietsi ez izana. Era berean, eurek ez dira arduradun sentitzen, halere, Kutxabank-entzat hoberena delako, egoera birbideratzeko prest daude. Uste du Kutxabankek profesionaltasunez jardun behar duela, eta politikoek azkenean babestu behar badute ere, ez dute agindurik eman behar Kontseiluak gertatzen ari den moduan.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) responde que la negociación estaba abierta y lo estaba para todos. No es que haya sido voluntad de dos Partidos Políticos excluir al resto, sino que han sido los únicos que han podido llegar a un acuerdo. El PNV tiene diez representantes admitidos, cuando en la actualidad le corresponden dieciocho y cree que bajar de dieciocho a diez, es bajar bastante. En ese sentido, Bildu estaba de acuerdo en que el PNV tuviera diez representantes, no va a entrar a valorar de donde han venido las desavenencias y donde fijaba su límite el anhelo. Pero con respecto a la pérdida de fuerza en Gipuzkoa tiene que decir que el peso de las Cajas está determinado en un 57%, 32% y 11%, es la fuerza que cada Caja tiene, se reparten el dinero para la obra social, está establecido asi y piensa que los intereses de Gipuzkoa están asegurados. Insiste en que es una pena que se haya politizado y que no se haya llegado a un acuerdo, también insiste en que no se sienten responsables pero sí están dispuestos a reconducir la situación porque es lo mejor para Kutxabank. Lo que Kutxabank necesita es la profesionalidad, al final los políticos tienen que proteger, pero no marcar los dictados, y eso es lo que pasa en el Consejo.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

EAJ/PNV taldeak aurkezturiko mozio alternatiboa bozkatu dute.

Sometida a votación la moción alternativa presentada por el Grupo EAJ/PNV.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Udalbatzak, gehiengoz, aurkako 8 botorekin(O.E. BILDU) , aldeko 4 botorekin (EAJ/PNV, PP) eta 8 abstentzioz (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Errenteriako Ezkerra),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 8 votos en contra (O.E. BILDU), 4 votos a favor (EAJ/PNV, PP) y 8 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Errenteriako Ezkerra)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Atzera botatzea** EAJ/PNV taldeak aurkezturiko mozio alternatiboa, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

**Desestimar la moción alternativa** presentada por el Grupo EAJ/PNV que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

Jarraian.

Seguidamente.

BILDU eta PSE-EEk Kutxabank-i buruz aurkezturiko mozioa bozkatu dute:

Sometida a votación la moción formulada por BILDU y PSE-EE relativa a la representación en Kuxabank.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), aurkako 4 botorekin (EAJ/PNV, PP) eta abstentzio 1ekin (Errenteriako Ezkerra),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 15 votos a favor (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), 4 votos en contra (EAJ/PNV, PP) y 1 abstención (Errenteriako Ezkerra),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Onartzea BILDU eta PSE-EEk** Kutxabank-i buruz aurkezturiko mozioa, gai honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

**Aprobar** la moción formulada por BILDU y PSE-EE relativa a la representación en Kuxabank, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

**11. PSE-EEren mozioa, haur jaio berrien bidegabeko jabetza edo arauz kontrako adopzioak egiteagatik.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du: Honek hitzez hitz zera dio:

"Juan Carlos Merino jaunak, Errenteriako Udalean PSE-EE taldeko ordezkariak, Udalbatzari aurkeztu dio HAUR JAIO BERRIAK USTEZ BIDEGABEKERIAZ JABETU EDO ARAUZ AURKAKO ADOPZIOAK egin izanari buruzko MOZIOA azter dezan.

**JUSTIFIKAZIOA**

Euskal Autonomia Erkidegoan 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregulartasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago. Jatorria frankismoaren diktaduraren errepresioa duela, zenbait jende aprobetxatu ziren familia askok bizi zuten txirotasunaz, eskolagabetasunaz, informazio ezaz eta eskubide gabeziaz bizi zirenaz.

Haur-lapurreta eta salmenta-trama hauek antolatzeko Frankismoaren errepresioaz baliatu ziren pertsonek, urteak pasatu ondoren, jarraitu zuten boterea erabiltzen delitu hauek egiten jarraitzeko.

**11.- Moción del PSE-EE sobre la apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares.**

Leída por el Secretario la siguiente moción que literalmente dice:

"Don Juan Carlos Merino Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN con relación a la SUPUESTA APROPIACIóN INDEBIDA DE NIÑOS RECIÉN NACIDOS O ADOPCIONES IRREGULARES.

**JUSTIFICACIÓN**

Entre los años 50 y hasta 1990, en la Comunidad Autónoma del País Vasco y en todo el Estado español, se han dado irregularidades administrativas que hacen sospechar sobre casos de apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares. Con origen en la represión de la dictadura franquista hubo quienes se aprovecharon de las circunstancias que padecías muchas familias de pobreza, analfabetismo, falta de información y ausencia de derechos.

Las personas que se aprovecharon de la represión franquista para organizar estas tramas de robo y venta de niños siguieron años más tarde utilizando su situación de poder para seguir perpetrando estos hechos delictivos.

Dirudienez, egonkorturiko bideak zeuden legez kanpoko haur-trafikoan. Bat, Madril eta Valentzia lotzen zituena, eta bestea, Euskal Erkidego eta Nafarroatik (iparraldetik) Valentzia eta Saguntoko etxe-sehaskatara jarduten zuena. Euskadin kalteturikoen bi elkarteek, alegia, SOS Bebés Robados eta Anadirrek Euskal Erkidegoan lapurturiko 400 haur jaio berri baino kasu gehiago daudela esan dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia (EAEAN) oraintxe bertan ustezko 200 haur lapurtuen kausak tramitatzen ari da, horietatik 121 Gipuzkoakoak dira, 48 eta 64 artean Bizkaikoak eta 31 Arabakoak. Gipuzkoa da Estatu espainolean kasu gehien dituen herrialdea.

Al parecer, existían unas rutas estables en el tráfico ilegal de niños. Una que unía Madrid con Valencia y otra que operaba desde el Norte, País Vasco y Navarra, a las Casas Cuna de Valencia y de Sagunto. Las dos asociaciones de afectados existentes en Euskadi, SOS Bebés Robados y Anadir han contabilizado en el País Vasco más de 400 casos de robos de niños recién nacidos. El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) está tramitando actualmente 200 casos de presuntos bebés robados, de los cuales 121 corresponden a Gipuzkoa, entre 48 y 64 a Bizkaia y 31 a Alava. Gipuzkoa es uno de los Territorios que aglutina un mayor número de afectados a nivel del Estado español.

Sos Bebés Robados eta Anadir elkarteak euskal erakunde guztiekin elkartu dira haien egoeraren, kezken, eskaeren eta eskakizunen berri emateko.

Las asociaciones Sos Bebés Robados y Anadir han acudido y se han reunido con todas las instituciones vascas para explicarles y hacerles conscientes de su situación, preocupaciones, peticiones y demandas.

Bereziki Gipuzkoako Batzar Nagusien Berdintasun, Giza Eskubide eta Memoria Historiko Batzordean azaldu ziren eta foro horretan azaldu zituzten erakunde publikoei egiten zizkieten eskaerak ikertzen eta lapurturiko haurren salaketak jartzen laguntzeko.

En particular, comparecieron en septiembre de 2011 en la Comisión de Igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica de las Juntas Generales de Gipuzkoa y en ese foro explicaron las reivindicaciones que hacían a los poderes públicos para ayudarles en la investigación y en la denuncia de los casos de niños robados.

Elkarte hauek eta kaltetuek erakundeei eskatzen die berma diezaioten egia-eskubidea, alegia, senitartekoek desagertutakoen berri izateko eskubidea, hain zuzen hori tokiko, lurraldeko eta erkidegoko eta estatuko agintarien obligazio politikoa delako. Horregatik, PSE-EE udal

Estas asociaciones y los afectados piden de las instituciones que se les garantice el derecho a la verdad, el derecho a ser informados del destino de los familiares desaparecidos porque es una obligación política de las autoridades competentes a nivel, local, territorial y autonómico, así como



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

taldeak planteatzen du ondoko

estatal. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOZIOA**

**MOCION:**

LEHENENGO. Errenteriako Udalak bat egiten du elkarte eta kaltetuen eskaerarekin eta, bereziki, eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari har ditzaketen neurri guztiak hartzeko, hain zuzen, elkarte eta kaltetuek exijituriko egia-eskubidea bermatzearren.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Errenteria se suma a la petición de de las asociaciones y afectados de pedir, en especial, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno vasco y al Gobierno del Estado a que adopten cuantas medidas sean necesarias y estén a su alcance para garantizar el derecho a la verdad exigido por estas asociaciones y afectados.

BIGARREN. Errenteriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, bereziki Gipuzkoako Ahaldun Nagusiaren Kabineteariaren barruan sortutako Memoria Historikoko Zuzendaritzari, elkarte eta kaltetu horiekin hitzarmen bat sina dezan. Gainera, dokumentazioa lortzearren haiekin kolaboratzeko, arreta psikologikoa eskaintzeko eta salaketa eta ikerketa-jarduerak garatzearren lege-laguntza, bestelako laguntzak eta diru-laguntzak emateko.

SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Errenteria insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en particular a la Dirección de Memoria Histórica creada dentro del Gabinete del Diputado General de Gipuzkoa a suscribir un convenio con estas asociaciones y los afectados para ayudarles económicamente, colaborar con ellos en la obtención de documentación, atención psicológica, ayuda legal y otras ayudas y subvenciones para el desarrollo de sus actividades de investigación y denuncia.

HIRUGARREN. Errenteriako Udalak eskatzen die erakundeei —Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Eusko Jaurlaritzari eta Diputatuen Kongresuari— Ikerketa Batzorde bat abian jartzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan lapurturiko haurren inguruko egia argitzearren.

TERCERO.- El Ayuntamiento de Errenteria pide a las instituciones parlamentarias, -Juntas Generales de Gipuzkoa, Parlamento Vasco y Congreso de los Diputados-, la apertura de una Comisión de Investigación para el esclarecimiento de la verdad en los casos de niños robads en el Territorio histórico de Gipuzkoa.

LAUGARREN.- Errenteriako Udalak eskatzen die

CUARTO.- El Ayuntamiento de Errenteria solicita



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

ospitale publiko zein pribatu guztiei kolaboratzeko, hots, haur-lapurreta tramarekin zerikusia dutenei eta Eliza Katolikoari, Donostiako Apezpikutza elkarte eta kaltetuekin kolaboratzeko beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzen, horretarako erraztasunak emanez hain justu.

la colaboración de todos los Hospitales Públicos y privados, que estén relacionados con la trama de robo de niños y a la Iglesia Católica, en especial al Obispado de San Sebastián, a colaborar con las asociaciones y afectados en el acceso a la información y documentación necesaria, facilitándoles el acceso a la misma y su obtención.

BOSGARREN. Errenteriako Udalak eskatzen dio Estatuko Fiskal Nagusiari instrukzioa agindu dezan fiskalek prozesu judizialak sustatu eta abian jartzearren erraztasunak emateko, eta ikertu ditzaten lapurturiko haurrekin zerikusia duten salaketak.

QUINTO.- El Ayuntamiento de Errenteria insta al Fiscal General del Estado a dictar instrucción, ordenando a las Fiscalías que promuevan y faciliten la apertura de procesos judiciales y la investigación en relación con las denuncias relacionadas de niños robados.

SEIGARREN. Errenteriako Udalak ahal duen guztian kolaboratuko du elkarte eta kaltetuekin, gainera sostengua, elkartasuna eta maitasuna adieraziko die".

SEXTO.- El Ayuntamiento de Errenteria colaborará en todo lo que competa con las asociaciones y afectados, mostrándoles además su apoyo, solidaridad y cariño."

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du kontsentsu handiagoa lortzearren, mozioan aldaketa zenbait egin nahi dituztela. Hala, hirugarren paragrafoan "ikerketa batzordea" jartzen duen lekuan "jarraipen batzordea" jartzea nahi dute. JUSTIFIKAZIOA atalaren laugarren paragrafoan zera sartu nahi dute: Era berean, duela gutxi jakin dute Galdos Erriondo familia kaltetua suertatu zela Akizeko Hospice ospitalean 1963an ustezko lapurreta egin ziotelako. Kontuan izanik Frantziako Estatuan eman den lehenengo kasua dela, esan dezakete familia horren egoera larritu egin dela jakinik

* Interviene el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que en aras a conseguir un mayor consenso, quieren hacer unos cambios en la moción que han presentado, que serían: en el párrafo tercero, donde pone "comisión de investigación" que sea "comisión de seguimiento"; insertar como cuarto párrafo de la sección "JUSTIFICACIÓN" lo siguiente: Asimismo, recientemente hemos conocido el caso de la familia Galdos Erriondo afectados por un presunto robo de un familiar en el Hôspital Hospice de Dax en el año 1963. Considerando que es el primer caso conocido en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

horrelako kasuek Gipuzkoan izan zitzaketen baliabideak. Azkenik, ebazpen-zatiaren zazpigarren puntuan zera gehitzea nahi dute: ZAZPIGARREN. Errenteriako Udalak, Galdos Erriondo familiaren inguruan, Akizeko administrazioei eskatzen die parte hartzeko eta kolaboratzeko familia horrek informazioa jasotzeko eta beharrezko dokumentazioa erdiesteko. Mozioari dagokionez, berriz, gaiari buruz egunkarietan azaltzen diren albisteetan ikusi ahal izan duten gisan, berak datu batzuk gehituko ditu eta beste batzuk azpimarratu, mozioa aurkeztu zutenetik egun arte horiek hobetuak izan direlako. Hauxek dira beroriek: “Euskal epaitegi eta fiskalak jada 223 salaketa ikertzen ari dira; epailearen aginduz hiru hilobi arakatu dituzte, eta ez dute haur-hondakinik aurkitu; Euskadin 650 kaltetu daude, horietatik 350

Gipuzkoan; Osakidetzak 416 klinika-txosten eskari jaso ditu; Euskadin eginiko salaketak bikoizten dira bestetan eskaturiko mediku-txostenak; emakume asko dago erditu eta demostratu ezin duena, haren mediku-txostenik azaltzen ez delako; oztopo asko jartzen ari dira klinika-txostenak emateko garaian eta legez jasotzeko eskubidea duten dokumentuak ukatzen ari zaizkie; Gipuzkoan egin dira Estatuko salaketa gehien; egin diren hilobi-hustuketak psikosi moduko bat eragin du eta gizarte-alarma larria piztu da, eta horrek beste kaltetu sail bat azaltzera eraman du, zeinak aholkularitza jasotzeko kaltetuen elkarteekin harremanetan jarri ditu; egunero datu berriek harrituta uzten gaitu, izan ere, ulergaitza baita gertakari hauek denak jazotzea ospitaleko jende, administrazio, eliza, epaitegi, etab.en laguntzarik gabe”. Gaineratu duenez, hori guztia oso larria da eta izugarrizko gizarte-alarma eragin du. Horregatik, bere Taldeak mozio hau aurkeztu du eta uste du Udalak

el Estado francés, cabe señalar que la situación de esta familia se agrava toda vez que no cuenta con los recursos que pudieran tener estos mismos casos en el territorio de Gipuzkoa; y por último, añadir como séptimo punto de la parte dispositiva lo siguiente: SEPTIMO.- El Ayuntamiento de Errenteria, en relación con el caso de la familia Galdos Erriondo, solicita a las Administraciones de Dax su implicación y colaboración a fin de posibilitar el acceso de la familia a la información y documentación necesaria, así como a su obtención. Referente a la moción, como todos habrán podido ver las noticias que aparecen en los periódicos referentes a este tema, añadirá unos datos que han sido mejorados desde que presentaron la moción hasta la actualidad e incidirá en algún otro, como son: “juzgados y fiscales vascos investigan ya 223 denuncias; tres tumbas exhumadas por orden judicial

y no se han encontrado restos de bebés; 650 afectados en Euskadi, 350 de ellos en Gipuzkoa; Osakidetza ha recibido 416 demandas de historias clínicas; las solicitudes de historias médicas dobla las de las denuncias puestas en Euskadi; hay cantidad de mujeres que no pueden demostrar que han dado a luz porque su historial no aparece; se están poniendo grandes trabas para facilitar historias clínicas y se están negando documentos a los que tienen derecho por Ley; Gipuzkoa es el territorio de todo el Estado que más afectados han denunciado; los resultados de las exhumaciones practicadas han creado una especie de psicosis y una grave alarma social provocando otro aluvión de nuevos afectados que se están poniendo en contacto con las asociaciones de afectados para recibir asesoramiento; cada día nos asombramos con nuevos datos, no se comprende la realización de todos estos hecho sin la colaboración de la trama de importantes redes con personal sanitario,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

sostengatu, elkartasuna adierazi eta kolaboratu behar duela kaltetuen elkarteekin, hain zuzen, gertakari larri hauek argitzeko. Mozioan hainbat puntu jasotzen dira, egia jakiteko eskubidea bermatzeko gutxienez beharrezkoak direla uste dutelako. Horregatik, Udalbatza osatzen duten gainontzeko taldeei eskatzen diete mozioa sostengatzeko eta ahalik eta kontsentsu handienarekin gizartean eragin handia izan duen arazo larri hau argitzeko, gisa horretan ikertzaileei bultzada bat emango diotelarik.

administrativo, eclesiástico, judicial, etc., etc." Todo ello es muy grave y ha generado una enorme alarma social, por lo cual su Grupo presenta esta moción entendiendo que este Ayuntamiento debe apoyar, solidarizarse y colaborar con las asociaciones de afectados para el esclarecimiento de estos graves hechos. La moción presenta una serie de puntos que creen que son minimamente necesarios para garantizar el derecho a la verdad, solicitando al resto de Grupos que conforman este Ayuntamiento su apoyo, para con el máximo consenso esclarecer este enorme y grave problema de gran calado social y con ello apoyar un impulso a las investigaciones.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du badaudela emozionatzen zaituen pelikula zenbait, baina gero gorputz txarra uzten dizutenak. Hortaz, norbaitek sentipen hori sentitu nahi badu "Estrellas que Alcanzar" ikustea gomendatzen du. Filma Saturrarango kartzelari buruzkoa da, alegia, frankistek galtzaileen, errepublikanoen, aldekoak preso hartzen zituztena. Filmean preso hartutako emakume baten seme-lapurreta deskribatzen da. Hortaz, zigor-politiko gisa hasi zena —ez du esan nahi gerra aurretik horrelako kasurik eman ez zenik, ziur aski izango zirelako—, baina guda zibilaren amaieran sistematizatu egin zen guda zibila galdu zutenak zigortzeko prozesu gisa. Gero, degradazio hori oraindik are gehiago okertu zen haur-lapurreta prozesu makabroa. Beraz, hasi bezala amaitu nahi du, eta, berriro esaten die bertan daudenei filma hori ez badute ikusi, ikusteko, nahiz eta jakin gorputz txarrarekin geratuko direla, berreskuratu beharreko historiaren zati dela uste duelako.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que hay películas que te emocionan pero te dejan mal cuerpo, si hay alguien que quiera tener esa sensación le recomendaría que viera "Estrellas que alcanzar". Ésta es una película sobre la carcel de Saturrarán donde los franquistas encerraban a las mujeres del bando perdedor, el bando republicano. En la película se describe el proceso del robo del hijo de una madre encerrada en la prisión. Lo que empezó siendo un castigo político, y no quiere decir que antes de la guerra no hubiese habido casos, posiblemente los habría, pero al final de la guerra civil se sistematiza como un proceso de castigo a los que la perdieron. Después, esa degradación degeneró totalmente en un proceso macabro que es el de las niñas y niños robados. Termina como empezaba y vuelve a recomendar a los presentes que si no la han visto, vean esa película, sabiendo que se queda uno con mal cuerpo pero que es parte de esa historia que hay que recuperar.


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

* Bastos andreak (PP) esan du mozioarekin ados daudela eta aldeko bozka emango dutela.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du, bere iritziz, ez dela izango familia bati haur bat lapurtzea baina gauza lazgarri, deitoragarri eta mingarriagorik. Are gehiago ospitale batean, aditu eta gainerakoekin, konfiantza osoa jartzen duzunen, eta gainera, iseka gehiagorako, horrekin dirua irabaztea. Egia esan —dio— ezinezkoa zait drama horien lekuan jartzea. Hortaz, bada, epaileen azken jarduketek sorrarazi duten alarma izugarria da, izan ere, egia izango ote zen ustezko zalantzak, orain frogatzen eta egiaztatzen ari baitira. Berak, bere aldetik, itxaropena du alderdi politiko bakar batek ere kontu honekin abantaila ateratzen ez dela hasiko; espero du talde politikoa osatzen duten pertsonen sentiberatasuna gailentzea. Bestalde, Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) hirugarren paragrafoan "ikerketa batzordea"ren lekuan "jarraipen batzordea" jartzeko proposamena egiten zuen. Hau ez da kapritxo bat, kontua ez da hitz bat aldatzekoa, baizik eta bere taldeak uste du, Eusko Jaurlaritzan edo Batzar Nagusietan ikerketa batzorde bat eratuz gero, azkenean, politika-erantzukizunak argitu nahi izaten direla, eta, bere ustez, kasu hauetan, berak dakiela, ez daudenak. Horregatik uste dute beharrezkoa dela, erakunde publiko gisa, jarraipen-batzordeak sortzea gertatzen den guztiari jarraipen estua egiteko. Baina, bere ustez, gehien azpimarratu beharrekoa ikerketa-batzordeak dira, hain zuzen kontu hau fiskaltzan eta epailetzan ebatzi behar delako. Berak, bere aldetik, gaiaren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du eta Errenteriako

* Interviene la Sra. Bastos (PP) manifestando que están de acuerdo con la moción y votará a favor.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que no cree que haya muchas cosas, si hay alguna más sangrante, deplorable y dolorosa, que el robar un bebé a una familia. Máxime en una situación donde se supone que la confianza otorgada es máxima en todos estos casos que se están conociendo, en un hospital, con profesionales, y además, para mas INRI que se lucren de ello, la verdad es que no alcanza a ponerse en la piel de quien ha sufrido estos dramas. La alarma que han generado las últimas actuaciones judiciales es máxima porque lo que generaba dudas de si sería cierto, se está comprobando y verificando. Personalmente tiene la esperanza de que ningún Partido Político intente sacar rédito de este tema, espera que impere la sensibilidad de las personas que conforman los Grupos Políticos. Decía el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) de modificar en el tercer párrafo "comisión de investigación" por "comisión de seguimiento", esto no es algo caprichoso, no es cuestión exclusivamente de modificar una palabra, sino que su Grupo hacía la reflexión de que una comisión de investigación en el Parlamento Vasco o en Juntas Generales, al final lo que busca es depurar unas responsabilidades políticas, que al menos a priori parece que no hay en estos supuestos. Por esto creen necesario que como instituciones públicas, se creen comisiones de seguimiento para estar a pie de calle de todo lo que acontezca, pero donde tienen que hacer más hincapié las comisiones de investigación es desde el punto de vista de la fiscalía y la judicatura, que es quien



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

familiari elkartasuna adierazten dio. Baten kasua aitatzen da eta, Frantzian gertatu izanaren bereizgarritasunak ditu, eta ondorioz desabantaila are handiagoa da. Ez dakite kasu gehiago aterako ote diren herrian, baina, edonola ere, euren konpromisoa eta elkartasuna adierazi nahi diete.

tiene que resolver esto. Desde luego por su parte mostrar el compromiso a hacer seguimiento del tema y la solidaridad a las familias de Errenteria. Se mencionaba una que además tiene la particularidad de haberse producido en Francia, con lo cual la situación de desventaja es aun mayor. Desconocen si van a salir mas casos en este municipio, pero desde luego su compromiso y solidaridad con ellos.

* Lopez de Echezarreta andreak (O.E. BILDU) esan du eurek euren babesa eman nahi dietela ezjakintasun horretan dauden familia guztiei, oso zaila izan behar duelako ezjakintasun horretan egotea. Hortaz, babesa eman eta konpromisoa hartzen dute, Administraziotik eta Justiziatik laguntza guztia izan dezaten, ahal dena egiteko. Gero, Maite Peñak aitatu duen moduan, dirudienez herri honetako bati Frantzian gertaturiko kasu bat dute. Ikusten denez, Euskal Herritik eta Estatutik at, Frantzian ere eman dira holako kasuak, eta beraz, kontu honen oraindik dimentsioa handiagoa hartzen du.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que desean dar su apoyo a todas las familias que están pasando por dichas circunstancias, debido a que debe ser muy difícil convivir con ese desconocimiento. Por ello, apoyan y adoptan el compromiso de realizar lo que esté en su mano para que la Administración y la Justicia tengan toda la colaboración. Por otra parte, como ha mencionado Maite Peña, al parecer existe un caso de una familia de aquí ocurrido en Francia, con lo cual, al darse casos de ese tipo también fuera del País Vasco y del Estado, está tomando dimensiones superiores.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Ondoren, adosturiko aldaketa zenbait sartu dituzte. Hots:

Incluídas las modificaciones acordadas, consistentes en:

- “**Ikerketa Batzordea”ren ordez “Jarraipen Batzordea”** jarriko da mozioaren ebazpen-zatiko hirugarren puntuan.

- **Modificar ”Comisión de Investigación” por “Comisión de Seguimiento”** en el tercer punto de la parte dispositiva de la moción.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

- JUSTIFIKAZIO atalaren laugarren paragrafoan zera **sartzea**: Era berean, duela gutxi jakin dugu Galdos Erriondo familia kaltetua izan dela Akizeko Hospice ospitalean 1963an ustez haur-lapurreta egin ziotelako. Kontuan izanik Frantzian ezagutzen den lehenengo kasua dela, uste dugu familia honen egoera are larriagoa dela, hain zuzen honek ez duelako Gipuzkoan kasu berekin izan zezaketen baliabiderik.

- **Insertar** como cuarto **párrafo** de la sección "JUSTIFICACIÓN" lo siguiente: Asimismo, recientemente hemos conocido el caso de la familia Galdos Erriondo afectados por un presunto robo de un familiar en el Hôspital Hospice de Dax en el año 1963. Considerando que es el primer caso conocido en el Estado francés, cabe señalar que la situación de esta familia se agrava toda vez que no cuenta con los recursos que pudieran tener estos mismos casos en el territorio de Gipuzkoa.

- Ebazpen zatiko **zazpigarren puntuan zera gehitzea**: ZAZPIGARREN. Errenteriako Udalak, Galdos Erriondo familiaren kasuan, eskatzen die Akizeko administrazioei parte hartu eta kolaboratu dezaten familiak beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzearren.

- **Añadir** como **séptimo punto** de la parte dispositiva lo siguiente: SEPTIMO.- El Ayuntamiento de Errenteria, en relación con el caso de la familia Galdos Erriondo, solicita a las Administraciones de Dax su implicación y colaboración a fin de posibilitar el acceso de la familia a la información y documentación necesaria, así como a su obtención.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Onartzea** PSE-EEk jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularrei buruzko mozioa, zeina ondorengo eran idatzita geratzen baita:

**Aprobar** la moción del PSE-EE sobre la apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares, que queda redactada de la siguiente manera:

“Juan Carlos Merino jaunak, Errenteriako Udalean PSE-EE taldeko ordezkariak, Udalbatzari aurkeztu dio HAUR JAIO BERRIAK USTEZ BIDEGABEKERIAZ JABETU EDO ARAUZ AURKAKO ADOPZIOAK egin izanari buruzko MOZIOA azter dezan.

**JUSTIFIKAZIOA**

Euskal Autonomia Erkidegoan 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregulartasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago. Jatorria frankismoaren diktaduraren errepresioa duela, zenbait jende aprobetxatu ziren familia askok bizi zuten txirotasunaz, eskolagabetasunaz, informazio ezaz eta eskubide gabeziaz bizi zirenaz.

Haur-lapurreta eta salmenta-trama hauek antolatzeko Frankismoaren errepresioaz baliatu ziren pertsonak, urteak pasatu ondoren, jarraitu zuten boterea erabiltzen delitu hauek egiten jarraitzeko.

Dirudienez, egonkorturiko bideak zeuden legez kanpoko haur-trafikoan. Bat, Madril eta Valentzia lotzen zituena, eta bestea, Euskal Erkidego eta Nafarroatik (iparraldetik) Valentzia eta Saguntoko etxe-sehaskatara jarduten zuena. Euskadin kalteturikoen bi elkarteek, alegia, SOS Bebés Robados eta Anadirrek Euskal Erkidegoan lapurturiko 400 haur jaioberri baino kasu gehiago daudela esan dute. Euskal Autonomia Erkidegoko

“Don Juan Carlos Merino Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Errenteria, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN con relación a la SUPUESTA APROPIACIóN INDEBIDA DE NIÑOS RECIÉN NACIDOS O ADOPCIONES IRREGULARES.

**JUSTIFICACIÓN**

Entre los años 50 y hasta 1990, en la Comunidad Autónoma del País Vasco y en todo el Estado español, se han dado irregularidades administrativas que hacen sospechar sobre casos de apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares. Con origen en la represión de la dictadura franquista hubo quienes se aprovecharon de las circunstancias que padecías muchas familias de pobreza, analfabetismo, falta de información y ausencia de derechos.

Las personas que se aprovecharon de la represión franquista para organizar estas tramas de robo y venta de niños siguieron años más tarde utilizando su situación de poder para seguir perpetrando estos hechos delictivos.

Al parecer, existían unas rutas estables en el tráfico ilegal de niños. Una que unía Madrid con Valencia y otra que operaba desde el Norte, País Vasco y Navarra, a las Casas Cuna de Valencia y de Sagunto. Las dos asociaciones de afectados existentes en Euskadi, SOS Bebés Robados y Anadir han contabilizado en el País Vasco más de 400 casos de robos de niños recién nacidos. El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco

Justizia Auzitegi Nagusia (EAEAN) oraintxe bertan ustezko 200 haur lapurtuen kausak tramitatzen ari da, horietatik 121 Gipuzkoakoak dira, 48 eta 64 artean Bizkaikoak eta 31 Arabakoak. Gipuzkoa da Estatu espainolean kasu gehien dituen herrialdea.

(TSJPV) está tramitando actualmente 200 casos de presuntos bebés robados, de los cuales 121 corresponden a Gipuzkoa, entre 48 y 64 a Bizkaia y 31 a Alava. Gipuzkoa es uno de los Territorios que aglutina un mayor número de afectados a nivel del Estado español.

Era berean, duela gutxi jakin dugu Galdos Erriondo familia kaltetua izan dela Akizeko Hospice ospitalean 1963an ustez haur-lapurreta egin ziotelako. Kontuan izanik Frantzian ezagutzen den lehenengo kasua dela, uste dugu familia honen egoera are larriagoa dela, hain zuzen honek ez duelako Gipuzkoan kasu berekin izan zezaketen baliabiderik.

Asimismo, recientemente hemos conocido el caso de la familia Galdos Erriondo afectados por un presunto robo de un familiar en el Hôspital Hospice de Dax en el año 1963. Considerando que es el primer caso conocido en el Estado francés, cabe señalar que la situación de esta familia se agrava toda vez que no cuenta con los recursos que pudieran tener estos mismos casos en el territorio de Gipuzkoa.

Sos Bebés Robados eta Anadir elkarteak euskal erakunde guztiekin elkartu dira haien egoeraren, kezken, eskaeren eta eskakizunen berri emateko.

Las asociaciones Sos Bebés Robados y Anadir han acudido y se han reunido con todas las instituciones vascas para explicarles y hacerles conscientes de su situación, preocupaciones, peticiones y demandas.

Bereziki Gipuzkoako Batzar Nagusien Berdintasun, Giza Eskubide eta Memoria Historiko Batzordean azaldu ziren eta foro horretan azaldu zituzten erakunde publikoei egiten zizkieten eskaerak ikertzen eta lapurturiko haurren salaketak jartzen laguntzeko.

En particular, comparecieron en septiembre de 2011 en la Comisión e Igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica de las Juntas Generales de Gipuzkoa y en ese foro explicaron las reivindicaciones que hacían a los poderes públicos para ayudarles en la investigación y en la denuncia de los casos de niños robados.

Elkarte hauek eta kaltetuek erakundeei eskatzen die berma diezaioten egia-eskubidea, alegia, senitartekoek desagertutakoen berri izateko eskubidea, hain zuzen tokiko, lurraldeko eta

Estas asociaciones y los afectados piden de las instituciones que se les garantice el derecho a la verdad, el derecho a ser informados del destino de los familiares desaparecidos porque es una


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

erkidegoko eta estatuko agintarien obligazio politikoa delako. Horregatik, PSE-EE udal taldeak planteatzen du ondoko

obligación política de las autoridades competentes a nivel, local, territorial y autonómico, así como estatal. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOZIOA**

**MOCION:**

LEHENENGO. Errenteriako Udalak bat egiten du elkarte eta kaltetuen eskaerarekin eta, bereziki, eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari har ditzaketen neurri guztiak hartzeko, hain zuzen, elkarte eta kaltetuek exijituriko egia-eskubidea bermatzearren.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Errenteria se suma a la petición de de las asociaciones y afectados de pedir, en especial, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno vasco y al Gobierno del Estado a que adopten cuantas medidas sean necesarias y estén a su alcance para garantizar el derecho a la verdad exigido por estas asociaciones y afectados.

BIGARREN. Errenteriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, bereziki Gipuzkoako Ahaldun Nagusiaren Kabineteаren barruan sortutako Memoria Historikoko Zuzendaritzari, elkarte eta kaltetu horiekin hitzarmen bat sina dezan. Gainera, dokumentazioa lortzearren haiekin kolaboratu dezan, arreta psikologikoa eskaini eta salaketa eta ikerketa-jarduerak garatzearren lege-laguntza, bestelako laguntzak eta diru-laguntzak emateko.

SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Errenteria insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en particular a la Dirección de Memoria Histórica creada dentro del Gabinete del Diputado General de Gipuzkoa a suscribir un convenio con estas asociaciones y los afectados para ayudarles económicamente, colaborar con ellos en la obtención de documentación, atención psicológica, ayuda legal y otras ayudas y subvenciones para el desarrollo de sus actividades de investigación y denuncia.

HIRUGARREN. Errenteriako Udalak eskatzen die erakundeei —Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Eusko Jaurlaritzari eta Diputatuen Kongresuari— Jarraipen Batzorde bat abian jartzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoan lapurturiko haurren inguruko egia argitzearren.

TERCERO.- El Ayuntamiento de Errenteria pide a las instituciones parlamentarias, -Juntas Generales de Gipuzkoa, Parlamento Vasco y Congreso de los Diputados-, la apertura de una Comisión de Seguimiento para el esclarecimiento de la verdad en los casos de niños robados en el Territorio histórico de Gipuzkoa.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

LAUGARREN.- Errenteriako Udalak eskatzen die ospitale publiko zein pribatu guztiei kolaboratzeko, hots, haur-lapurreta tramarekin zerikusia dutenei eta Eliza Katolikoari, Donostiako Apezpikutza elkarte eta kaltetuekin kolaboratzeko beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzen, horretarako erraztasunak emanez hain justu.

CUARTO.- El Ayuntamiento de Errenteria solicita la colaboración de todos los Hospitales Públicos y privados, que estén relacionados con la trama de robo de niños y a la Iglesia Católica, en especial al Obispado de San Sebastián, a colaborar con las asociaciones y afectados en el acceso a la información y documentación necesaria, facilitándoles el acceso a la misma y su obtención.

BOSGARREN. Errenteriako Udalak eskatzen dio Estatuko Fiskal Nagusiari instrukzioa agindu dezan fiskalek prozesu judizialak sustatu eta abian jartzearren erraztasunak emateko, eta ikertu ditzaten lapurturiko haurrekin zerikusia duten salaketak.

QUINTO.- El Ayuntamiento de Errenteria insta al Fiscal General del Estado a dictar instrucción, ordenando a las Fiscalías que promuevan y faciliten la apertura de procesos judiciales y la investigación en relación con las denuncias relacionadas de niños robados.

SEIGARREN. Errenteriako Udalak ahal duen guztian kolaboratuko du elkarte eta kaltetuekin, gainera sostengua, elkartasuna eta maitasuna adieraziko die.

SEXTO.- El Ayuntamiento de Errenteria colaborará en todo lo que competa con las asociaciones y afectados, mostrándoles además su apoyo, solidaridad y cariño.

ZAZPIGARREN. Errenteriako Udalak, Galdos Erriondo familiaren kasuan, eskatzen die Akizeko administrazioei parte hartu eta kolaboratu dezaten familiak beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzearren".

SEPTIMO.- El Ayuntamiento de Errenteria, en relación con el caso de la familia Galdos Erriondo, solicita a las Administraciones de Dax su implicación y colaboración a fin de posibilitar el acceso de la familia a la información y documentación necesaria, así como a su obtención.

**12. Galdera-eskariak.**

**12.- Ruegos y preguntas.**

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du iragan abenduaren 30ean, Mª Carmen Marquez andreak Kutxaren helbide nagusian, erakunde honen zuzendaritzari, bere gurasoen etxetik botatzea ekiditeko proposamen bat aurkeztu ziola. Kutxaren zuzendaritzak Mª Carmenekin konpromisoa hartu zuen hil bateko epean zentzu bateko edo besteko erantzuna emango ziola. Hil bat baino gehiago pasa denez, Alkateari eta Errenteriako Udalak Kutxan duen ordezkariari eskatzen dio gestioak egiten jarraitzeko —jada zenbait egin dituztela jakin duelako—, hain zuzen, gutxienez, Mª Carmenek erantzun bat izan dezan, hots, hori edozein izanda ere, gisa horretan hautsiko litzatekeelako berak eta bere familiak bizi duten ezjakintasuna.

* El Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifiesta que el pasado 30 de diciembre, Mª Carmen Marquez presentó en la sede central de Kutxa, a la dirección de esta entidad, una propuesta para evitar el desahucio de la casa de sus padres. El compromiso que adquirió la dirección de Kutxa con Mª Carmen fue que en el plazo de un mes le daría una respuesta en un sentido o en otro. Ha pasado más de un mes y pide al Sr. Alcalde y a la representante del Ayuntamiento de Errenteria en el Consejo de Kutxa que se sigan realizando gestiones, porque le consta que ya se han realizado algunas, para que al menos Mª Carmen tenga una respuesta, sea en el sentido que sea pero que rompa en todo caso con la incertidumbre que ella y su familia están viviendo.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du egia dela gestioak egin dituela familia horrek eskatuta, eta nahiz eta gai horren inguruan gertakizun berri handirik ez dagoen, eusten dio lehendik hartutako konpromisoari eta gestio berriak egiten jarraituko du.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde en euskera que es cierto que han efectuado gestiones a peticion de esa familia, y pesar de que en ese tema no existen novedades, mantiene el compromiso adquirido y continuará realizando las mismas.

------------

----------

Jarraian.

Seguidamente.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du norbaitek gaur argazki asko egin direla aitatu duela. Bere iritziz, argazkirik garrantzitsuena zazpi mozioetatik —asko— lau aho batez onartu izana da. Bere aburuz, hori albiste ona da,

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señala que alguien ha comentado que hoy en el Pleno ha habido muchas fotos. A su entender la foto más importante es que de siete mociones que se han presentado, que son muchas, cuatro han



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

herrialde honek hain beharrezkoa duen normalizazio-politikorantz doazen bidea hain zuzen ere.

sido aprobadas por unanimidad. Cree que ésta es una buena noticia y que van caminando en buena dirección hacia la normalización política que tanto necesita este país.

* Bastos andreak (PP) esan du duela hamar egunez gero bazutela mozioen berri, eta eskatzen du azken orduan ez egiteko berorietan hainbeste paragrafo eta terminoen aldaketarik, izan ere, horrek nahasketaren bat eragin dezakeelako eta, beharbada, lauren ordez, mozio gehiago onar zitzaketen aho batez.

* La Sra. Bastos (PP) señala que las mociones se conocían desde hace dias y pide que no se produzca a última hora esa avalancha de cambios en los párrafos y términos de las mismas, porque eso produce alguna confusión y a lo mejor, en lugar de cuatro, podían haberse aprobado más mociones por unanimidad.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) norbera eskari horretaz jabetzeko iradoki du.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) sugiere que cada cual tome nota de esta petición.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

---------------------

--------------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.

Finalizadas las intervenciones.

Finalizadas las intervenciones.

--------------------

--------------------



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus